

**“Ez da ez, etsairik, jarriko zaizunik,  
inolaz, aurrean”. Loiolako santutegiaren  
jabetza XIX. eta XX. mendeetan**



Mikel Aizpuru eta Pedro Berriotxo

*Historian Doktoreak,*  
UPV/EHU

### ***Laburpena***

Loiolako Santutegia izan da Jesusen Lagundiaren ondasun preziatuena. San Inazioaren figurak Gipuzkoarentzat garrantzi berezia izan zuen herrialdea gorpuzteko eta trinkotzeko bitartekoa izan zelako. XIX. mendeko desamortizazio eta jesulagunen kanporatzearen ondoren, Lagundia eta Aldundia elkarlanean aritu dira Jesusen Konpainiak ondasun horiek berreskuratu ditzan. Aldundiak orubea erosi zuen eta jesuitek Lagundiaren esku jartzea lortu zuten 1885 inguruan. Santutegiaren lanak Compañía de Obras de Loyolaren bitartez amaitu ziren eta elkargo hori eta jesuitak inguruko lur eta etxeak bereganatzen joan ziren. Prozesu horrek istilu bat baino gehiago sortu zuen, nabarmenena Munategiko Odriozola familia etxegabetu zutenean.

### ***Summary***

The Sanctuary of Loyola was the most precious asset of the Society of Jesus. San Ignacio's figure has made an important impact on Gipuzkoa, because it helped strengthen and compact the territory. After the seizure and expulsion of the Jesuits, in the 19th century the Society of Jesus had been working with the Provincial Council to recover these assets. The Provincial Council bought the site and returned it to the Jesuits around 1885. Sanctuary works were completed by the Compañía de Obras de Loyola and this company and the Jesuits slowly became owners of the lands and houses in the surroundings. This process created more than one incident, the most prominent one being the expropriation of Odriozola family's farm from Munategi.

## 1.- Sarrera<sup>1</sup>

Donostiako irrati batean, sari bat jaso zuen Albako dukesak 2012ko udan, eta esker onez, nolabait aurkezleak hartara bultzatuta, kantuan hasi zen. Kopla, fandango edo txotisen bat aukeratuko zuela pentsatuko genuen guztiok, baina ez, ez zen horrela izan. Laurogeiak ondo beteta zituen aristokratak San Ignazioren martxa<sup>2</sup> abestu zuen euskaraz, erabat zuzen abestu ere.

Gaur egungo gazteek, seguruenik, ez dituzte ezagutuko kutsu militarreko doinu horiek, ez dute jakingo zertaz ari diren ereserkiko hitz gogor eta gartsuak. Urteetan aurrera goazenok, aldiz, Cayetana Fitz Stuart zenaren adinerako tartetxo bat falta bazaigu ere, badakigu hala edo hola martxa abesten eta, inolako zalantzarik gabe, baiezia dezakegu nolabait Gipuzkoako ereserkia izan dela.

“Hiru tenpluen ibilbidea” izendatu duten elizen arteko *pack* turistikoa batean sartuta dago Loiola egun, Zumarragako La Antigua basilizarekin eta Arantzazuko santutegiarekin batera. Mende erdi lehenago, ordea, bere onean zegoen inor ez zen ausartuko horrelako hirutasunik aurkezten. Arantzazuri inolako ohorerik kendu gabe eta La Antiguari buruzko ezer txarrik dagoenik ukatuta, Gipuzkoan santutegi edo basilika bat inoiz egon bada, hori Loiolakoa izan da. Gure egunotan, berriz, hildakoen eskelak datozkigu handik, elefante jesuiten hilerrria baita. Haren handitasuna ere erdi estalita geratu da ingurua urbanizatu ahala. Urolaren edertasunak erabat liluratuko luke XIX. mendeko argazkiren batean ikusten duena, zein lauak ziren inguruko lurak hain menditsua den probintzian. Baina, inolako ezbairik gabe, santutegiaren tamainak, haren bi aldeetako hegalek eta hain era harmoniatsuan gehitutako zatiek txundituko dute ikuslea. Kare-harrizko arranoa. Granitozko Guadarramaren beheko aldean egon beharrean, Izarraitzeko karezko haitz labarren pean dagoen Escorial bat.

Abuztuaren 1ean jai izaten da Loiolan eta Azpeitian, eta aspalditik bertarutzen dira Gipuzkoako agintari gorenak Gipuzkoaren Eguna balitz bezala, horrela izendatuta egon ez arren. Antzinako erako ospakizuna da, pisu sinboliko handikoa, izan ere. Foru Diputazioko ahaldun nagusiak eta beste agintari batzuek aurkezpen-paseo antzeko bat egiten dute<sup>3</sup>. Gure

---

<sup>1</sup> Lan hau Luis Castells katedradunak zuzentzen duen Euskal Unibertsitate Sistemako IT-708-13 Ikerketa Taldean egin da, Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak babesturiko «El peso de las percepciones del pasado en la política vasca. Violencia política, memoria e identidad territorial» ikerketaren barruan.

<sup>2</sup> Badirudi Agustin Pascual Iturriaga hernaniarraren lana dela gaur egungo letrarekin ezagutzen dugun Martxa eta aita Mendiburu S.J. berak idatzitako beste martxa zaharrago bat egon omen zen (Lecuona, 1931). 1842an agertu zen lehenengo aldiz inprimaturik. Lehenagokoa da musika, aita Lasaren arabera Hibernia erregimentuarena omen zen.

<sup>3</sup> Bitxia bada ere, ez Azpeitiko azken alkateek (ezker abertzalekoak), ez Martin Garitano Foru Ahaldun Nagusiak (Ierro politiko berekoa) egin zioten muzin ekitaldi politikoari, ezta prozesio “foral”ari

garaiotan, Autonomia Erkidegoko agintariak batu zaizkie: lehendakaria edo zenbait sailburu, hura egon ezean. Santutegiko eskailera handios inperialaren barrenean zain izaten dituzte ETako preso senitartekoak, txalotzeko edo iraintzeko, ahaldun nagusiaren lotura politikoaren arabera. Eskailera buruan, elizpean, elizbarrutiko gotzainak itxaroten die: azken sei urteetan Jose Ignacio Munilla kontserbadoreak. Probintziako aniztasun politiko eta ideologikoaren nahaste-borraste txiki bat izaten da; baina, ez du axola, Loiolak jarraitzen du nolabait denen agertoki izaten, beti izan den bezala. Horren ostean meza nagusia esaten da, eta elizatik irtendakoan, berriz ere paseoa, santuaren estandarteak daramatzaten mazolariak lagun dituztela. Mikelete zaharrak falta dira, baina erakundeen ahanzturatik berreskuratuko zirela agindu zigun Olano ahaldun nagusiak 2015ean. Gipuzkoako hagin zaharren kimu berriak berde-berde datoz, Jesusen Lagundiak pultsua erdi galduta badu ere.



Agintariak 2016. urtean. Pedro Berriotxoaren argazkia.

Bi helburu ditu lan txiki honek: lehena, “Probintziaren” (maiuskulaz idatzita, garai hartan bezala) eta San Ignazio-Jesusen Lagundia binomioaren arteko lotura estua aztertzea, gaur egunera arte iritsi den sinergia handiko indar bikoitza sortzen duen heinean. Izan ere, Estatuak jarrera ilustratua, liberala eta errepublikazalea izan du, Lagundiaren eta Loiolaren

---

ere, elizara sartu gabe geratu baziren ere. Donostiako abuztuaren 14ko Ama Birjinaren Salbearekin gertatu zenaren guztiz kontrakoa; izan ere, hiriburukoa ENAMen “borrokarako espazio-denbora” tarteetako bat bihurtu zen.

aurkakoa; Gipuzkoan, ordea, probintziako eliteak, behintzat, beti saiatu dira Lagundiaren zauriak sendatzen eta bitarteko elkarteen bitartez laguntzen. Era berean, Lagundia, zuen babesaz jabeturik, ziur, Loiolari lotu zaio hura lurralde guztirako indar-iturritzat hartuta, itzelezko ahalmen espiritual eta materialaren sorburu. Jesulagunentzat, fundatzailearen sorlekua izateaz gainera, Loiolakoa da geratzen den bakarra Lagundiaren hasierako kolegioen artean, eta bertan ikasi dute Lagundiko kide askok.

Lanaren bigarren helburua, bestalde, gaur eguneko basilikaren paisaia sorrarazi duen bilakaera aztertzea da, hori ahalbidetu duen prozesu material, legal eta ekonomikoa berreginez. XVII. mendean, jabeek Loiolako dorretxea jesulagunei saldu zietenean du abiapuntua prozesu horrek; harrezkero, XIX. mendean desamortizazioa jasan zuen, eta gerora, behin eta berriz, hainbat baliabide eta trikimailuren bitartez santutegiaren kontrolari eusten saiatu ziren jesulagunak. Halaber, joan den mendean zehar, basilikaren ingurua berreskuratu eta zabaltzeko jesuitek egindako ahaleginak ere aztergai izango ditugu. Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetara pasatu zen, eta gaur egun, Diputazioa da eraikuntza eta instalazio gehienen jabe. Orain arte, bilakaera horren kanpoko ezaugarrien berri baino ez dugu izan, batez ere elizaren eta jesulagunen ikastetxearen arkitekturarekin zerikusia izan duena izan baita aztergai. Aitzitik, santutegiaren jabetzari eta gozamenari zegozkien alde politikoa, ekonomikoa eta juridikoa ez dira izan ikerlarien intereseko. Loiolaren bilakaerak inguruko baserriarrengan izan zituen ondorioak ere ez dira aztertu, badakigun arren baserriar horietako batzuek utzi egin behar izan zituztela belaunaldiz belaunaldi bizi izandako etxeak.

## 2.- Paradoxa Loiolako Ignaziorengan eta Jesusen Lagundian

Jorge Mario Bergoglio 2013ko martxoaren 13an aukeratu zuten aita santu, eta Frantzisko izena hartu zuen orduan. Erromako gotzain izatera iritsi den lehenengo jesulaguna da. Gertaera erabat harrigarria da, kontuan izanik aita santuaren esanetara egotea botoetako batean ezarri zuela ordenak, eta lagunek eta etsaiek “aita santuzaletzat” hartu dutela lagundia. Frantzisko aita santuak, aldiz, ordena “lehiakidetik” hartu zuen bere izena; Jesusen Lagundiaren antz handirik ez duen ordena batetik, hain zuzen, Jesusen Lagundiarekin konparatuz gero, oso sorrera eta historia ezberdinekoa da eta. Are gehiago, badirudi Frantzisko aita santuaren adierazpenak hurbilago daudela frantziskotarren ordenatik beretik baino. Konklabearen ostean, kazetariekin izan zuen prentsaurrekoan honako adierazpide hau bota zuen: “Zenbat gustatuko litzaidakeen Eliza pobre bat eta pobreentzakoa!”. Paradoxikoa.

Eta orain arte esandakoa gorabehera, gaztelerako hitzen esanahia argitzen duen DRAEra joz gero, jesuita izenetik eratorritako “jesuítico” adjektiboari bi esanahi egokitzen

dizkio. Lehenengoak ez du inolako azalpenik behar, Loiolako San Ignaziok 1540an sortutako konpainiakoari lotutakoa adierazten baitu. Bigarrenak, ordea, mendeetan zehar Lagundiari leporatu zaion portaeraren antzekoa deskribatzeko erabiltzen dela dio; hau da, era hipokrita eta disimuludunean jokatzea adierazteko. Are paradoxikoagoa.

Askoren esanetan, Jesusen Lagundia sortzailearen beraren lana da, Loiolako Ignaziorena, alegia. Baina beste batzuek urrunago jo dute eta horiek sortzailearen izate euskaldunaren itzala ikusi dute Lagundiaren sorreran. Paradoxak bere horretan dirau.

Pertsonaia harrigarria da Loiolako Ignazio. Bera ere paradoxikoa, berak sortutako *Societas Jesu* (S.J.) ordenaren metonimia. Inolako zalantzarik gabe, euskaldunetan unibertsalena bera da, alde handiarekin. Non gordetzen zuen erakartzeko gaitasuna hain pertsonaia gozakaitz eta oldartsuak? Zer zuen berezi itxura eskaseko gizon hark bera baino kide gazteago, kultuago, indartsuago eta garrantzitsuagoak bereganatzeko? Lehenengo S.J. eratu zutenen arteko gazteenak zera zioen: “Kristorengan sortu gintuen berak, eta seinetan espirituzko esneaz elikatu gintuen”. Zergatik egin zuten denek bat berarekin? Zergatik izan zen Nagusi jenerala, bizitzaren zati handi batean arlote zarpailtsua izandakoa? Nondik zetorkion karisma erromes alderrai hari? Oraingoan hazi egin da paradoxa.

Loiolako Iñigo (1491-1556)<sup>4</sup>, gehienentzat Ignazio —unibertsitateko “maisutza” amaitutakoan hartu zuen izena—, Loiolako VIII. jaunaren hamahirugarren semea zen, Azpeitiko ahaide nagusietako bat. Umezurtz geratu zen haurtzaroan, eta lehenengo 16 urteak Gipuzkoako lurretan eman zituen. 1507an Arévaloko (Avila) etxe nobleago batera eraman zuten heztera. Hortxe hasi ziren ia beste hamasei urte luzatuko ziren Gaztelako harantz-honantzak: aitoren seme gazte, kapare, militar, galai..., armen, jokoaren eta damen lagun. Denok dakigu haren bizitzaren lerroaren norabidea Iruñeko harresian aldatu zela 1521ean, eta Gipuzkoako Urola bailaran, Loiolako etxean, egin zuela Damaskorako bidea.

Loiolako dorretxean “bihurtu” zen; hamabost urte luzatuko zen bilaketa hasi zuen orduan. Leku guztietan erromes, beste hainbatetan ikasle, betiere erabateko pobrezian: errukarri. Hogeita hamar urterekin hasi zuen noraezeko bizimodu alderrai hori. Montserrat, Manresa, Jerusalem, Alcalá, Salamanca, Paris... dira Iñigoren topografia malkartsu eta latzean kokatuta geratu ziren puntuetako batzuk. Bera, ortodoxiaren eredu zenak, ustez heterodoxian murgildu zelakoan, Inkisizioa izan zuen aurrez aurre; bai eta dominikoak eta elizako tribunalak ere.

---

<sup>4</sup> Hona hemen San Ignazioren zenbait biografia: biografietan aditu batena lehenengoa (Lacouture 1994: 9-173); apaiz eta historialari gipuzkoar batena bigarrena, (Tellechea Idígoras, 1986); hirugarrena, kanonikoena (Rivadeneira, 1969).

*Ignacio de Loyola, solo y a pie* du izenburua Tellechea Idígorasek egindako biografia pertsonalak. *Home del sac* deitzen zioten baserritar kataluniarrek. Milaka kilometro egin zituen oinez Iñigok, errenka, zarpailtsu, batzuetan oinutsik, liburuak eramaten zizkion astoa lagun. Ia 43 urte zituen, Parisko Unibertsitatean maisutza titulua lortu zuenean. Karitatetik bizi zen; hala ere, hura baino maila altuagoko kideak erakartzen zituen eta pobreziatik zetorkion buruzagitzaren aurrean ahuspezten ziren. Nekaldia, aszesia eta ia bere burua hiltzerainoko masakismoa ziren haren armak. Hortxe daude bere gogo-jardunak, *Ejercicios*, aszesiaren gimnastika. Baten batek aztertu beharko luke Ignazioren pertsona Nietzsche-ren pertsonaia bailitzan. Muturrerainoko borondate zalea. Beste paradoxa bat.

1538an jarri zen Erroman bizitzen, Elizaren boterearen gunean, *urbi et orbe*-ren egoitzan. Ez zitzaion Luterori bezala gertatzen, ez, Erromak ez zuen izutzen Ignazio. Barrokoaren aurreko Erroma manierista ezagutu zuen Loiolakoak; San Pedro basilikako lanetan ari zen orduan Michelangelo, itzal handiko abizendun aita santuak zeuden, ebanjelioak apur bat baztertuta bazeuzkaten ere. Ekintzarako gizona zen Ignazio; bazekien zer ziren kontenplazioa, eskean aritzea eta predikatzea, baina harago jo nahi izan zuen: botereari lotu eta ekin. Berrogeita zazpi urterekin apaiz —ez oso adin arrunta elizgizontzeko—, Nagusi Jeneral izendatu zuten aho batez bere bederatzi jesuitek. Ia militarra izan litekeen zentralismoaren euskarri da Ignazioren *Constituciones*. Gipuzkoako jauntxo liskarzalearen “gehiago balio” leloa “gehiago izan” bihurtu zen, baina hortik eratorria izan liteke “gehiago eduki”. Frantzisko aita santuak dio: “Botere goseak eta gehiago eduki nahiak ez dute mugarik”. Ignaziok utzitako Konpainia barroko urrezko orrien eta ebanjelioa zabaltzearen artean aukeratu ezinik geratu zen. Paradoxa gehiago.

Gaixoaldi luze baten ondoren hil zen Loiolako Ignazio 1556an. Haren biografoen arabera, ez zen ezertxo ere irensteko gai, baina jaioterritik eramandako gaztaina batzuk izan ziren salbuespena. Beharbada, Proustek bezala, une hartan Ignaziok gogoratuko zuen Loiolako baserritarrek eta inudeak hazitako mutiko hura.

Gipuzkoako Iñigo, Gaztelakoa, alderrai bideetan, Erromako Iñigo. Lau geltoki haren biografian.

Paradoxa ignaziotar hau Konpainiara bertara pasatuko zen. Oso erakunde gutxik bereganatu dute hainbeste elkartasun alde batzuetatik eta hain gorroto indartsua beste batzuetatik. 1767tik Espainian Gerra Zibila amaitu arte, era guztietako egoeratan egon da Konpainia: batzuetan kanpora botatzen zuten eta beste batzuetan onartu. Europako beste nazio batzuetan ere, bide berdina egin behar izan zuen, agintzen zutenen izaera laiko militanteak edo eskuzabaltasun mugagabeak erabakitzen baitzuen ea Konpainia jokoan ala jokoz kanpo zegoen. Klemente XIV.a aita santuak berak kanporatu zuen joko zelaitik. Eta zer

esan intelektualei buruz? Jansenistek, ilustratuek, liberalek, masoiek, sozialistek eta komunistek egin diote eraso eta jazarri dute. Pascalek, Voltairek, Diderotek eta Ortegak, besteak beste, kritikatu zuten erabat oldartsu. Ridikulizatu egin zuten Dostoyevski nobelagileak (*Karamazov anaiak*) eta Pérez de Ayalak (*A.M.D.G.*). Baina, aitzitik, aldekoak ere izan zituen: Keplerrek, Descartesek, Leibnitzek, Herderrek eta Robert L. Stevensonek, besteak beste, hauspotu egin zuten.

Elizako ordenarik garrantzitsuena izan da, eta oraindik hala da Konpainia. Gaur egun, S.J.ko 17.000 kide baino gehiago daude gure planetan. Urteetan zehar, hainbat gaitz leporatu zaizkio: fanatikoa izatea, azpijokoetan trebea, erreazionarioa, pribilegiadunen aldekoa, elitista, alde bikoitzeko jokabidean aritu zalea..., baina elizako beste erakunde gutxi egin diete zientziari eta kulturari Konpainiak besteko ekarpena. Bestalde, Ameriketako jokabideak garbi erakusten du boteretik urrun lanean diharduen Lagundia, hasi XVIII. mendean Paraguayn zituzten misio guneetatik, XX. mendeko El Salvadorren isuritako martiren odolera arte. Baina Konpainiak ezin gainetik kendu paradoxaren pisu astuna.

Ebanjelioetako zita baten bitartez bereganatu zuen Loiolako Iñigok Xabierko Frantzisko: “Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu?”<sup>5</sup>. Hasieratik bertatik dualtasunarekin batera: arima eta gorputza, indar espiritualak eta materialak.

### 3.- Loiolako Ignazioaren eta ignaziotarren itzal luze eta trinkoa Gipuzkoan

Hil eta ia 50 urtera egin zuten beato San Ignazio, 1609an, hain zuzen, eta 1620rako hartu zuen Gipuzkoak zaindaritzat, 1622an santu egin baino bi urte lehenago. Bizkaiak, aldiz, 1988ra arte bere santurik izan ez bazuen ere, askoz lehenago izendatu zuen zaindari San Ignazio, 1680an. Arabak ere zaindaritzat hartu zuen, Armentiako San Prudentziorekin batera, 1868an. Hortaz, ikono gipuzkoarra ez ezik, euskalduna ere bada Loiolakoa. Euskal Herritik urrun, Espainian eta Hispanoamerikan bizi ziren euskaldunak elkartzeko eta anaitasuna suspertzeko bidea izen ziren haren deiturapean sortutako elkarte eta kongregazioak.

Gipuzkoara mugatuz gero, esan daiteke Probintziak santua bereganatu arte ez zela erabat bete haren foru-egitura. Erdi Aroko azken garaietatik aurrera, Gipuzkoa ahaide nagusi borrokazaleak uxatzeko ahaleginetan ari zen —Iñigoren asaba zaharrak tartean—, hiribilduen arteko Anaitasuna ezarri zuen, legearen aurrean gipuzkoar guztiak kapare egin zituen eta lau

---

<sup>5</sup> Mateo 16, 26



mendetan foruak eta erakundeak zuzentzeko arautegia jarri zen indarrean. Gipuzkoaren ametsa erregearekin bi aldeko itun liberal bat egitea zen; lehenengo Gaztelakoarekin, geroago Espainiakoarekin. Larramendik naziotxoa, *nacioncita*, deitzen zuena elezahar eta ikurrei esker gorpuzten zen. Subiranotzat zuen bere burua, Tubalen ondorengo, kantabroa eta monoteista kristautu baino lehen. Aro Modernoan, konkistatzaileak, itsasgizonak, kartografoak, historialariak, goi-mailako politikoak eman zituen, baina, hala ere, santua falta zitzaion. Horretarako zegoen Loiola, santua eta haren etxea. Hala aitortu zuen 1885ean santutegiko lanen ardura hartu zuen batzordeak: «La casa de San Ignacio es, como todos lo sabemos, un suntuoso monumento, el más admirable sin disputa de las provincias vascongadas»<sup>6</sup>.



1951. Juan Bautista Blasco Soler irudigile valentziarrak margotutako Loiolaren irudia Gipuzkoako Aldundiko jauregiaren sarrera nagusia apaintzeko

Era guztietako adierazpenetan nabarmentzen zen santuaren eta probintziaren arteko uztardura. Enegarren aldiz jesuitak Espainiatik kanporatzearen aurka 1855eko Gorte konstituziogileei aurkeztutako adierazpen bat izenpetu zutenek honela deskribatu zuten samina:

Los suscribientes, y con ellos la casi totalidad de los individuos que pueblan el solar Guipuzcoano, han contado siempre como uno de sus más insignes y gloriosos blasones el haber nacido en este suelo de nobleza y fidelidad el ínclito patriarca San Ygnacio de Loyola (...) por lo mismo sus corazones se han llenado de indecible tristeza y amargura<sup>7</sup>.

<sup>6</sup> Archivo Histórico de Loyola. Azpeitia (AHL hemendik aurrera). 1-4-3, Tomo IV, doc. 107.

<sup>7</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa (GAO hemendik aurrera), JD SM 31, 3.

Antzeko hitzekin berretsi zuen 1945ean José Angel Lizasoainek, jesuitei basilika uzteko luzapena eskatu zuenean:

Bastaría decir que somos guipuzcoanos y pensamos en guipuzcoano; que nos honramos por la herencia de nuestros mayores y tenemos especial empeño y gusto en conservarla y aún aumentarla, cuanto podamos.

Todos los pueblos se esmeran en honrar y perpetuar la memoria de sus hijos ilustres. La Provincia de Guipúzcoa no ha sido excepción de esta regla, enalteciendo a San Ignacio, su Patrón y más preclaro hijo. El Santuario levantado en torno de la casa solar del Santo es el monumento más representativo de la Provincia, destinado al culto religioso y a la formación de los hijos del mismo Santo fundador, que allí han habitado siempre, rodeados del cariño y respeto de sus conciudadanos<sup>8</sup>.

Inolako zalantzarik gabe esan daiteke “gure patroia handia” zurtointzat hartuta, probintziak eta Jesusen Lagundiak lau mende baino gehiago iraun duen burdinazko lotura sortu zutela. 1594an, Esteban de Garibay historialariak jakinarazi zion probintziari jesulagunek eta Felipe II.a erregeak berak eskatzen zutela Loiolako Ignazio kanonizatua izan zedila. Gorosabelen esanetan (1972: 541-574), Garibayren helburua zen probintzia osoak bat egitea Gipuzkoak aita santuari erregutzeko kanonizazioaren alde.

Rivadeneira jesuitak egindako Ignazioren erretratu bat bidali zuen Garibayk; 1597an Deban bildutako Batzar Nagusiek jarri zioten markoa, eta Probintziaren artxihoan gorde zuten. Beato izan baino hamabi urte lehenago hasia zen Gipuzkoa Loiolakoa laudatzen.

1609an beato egin zutenean, herri guztietan ospatu zen aldareratzea eta Iruñeko gotzaina bera joan zen Azpeitira. Han Soreasuko San Sebastianen elizan (Loiolako etxearen babesean, bestalde) jarritako aldairearen aurrean, boto handiaren bidez zaindari babesletzat hartu zuen Ignazio Loiolakoa, eta beti zor izango ziola jaia egin zuen promesa.

Hurrengo urtean, Ordizian bildutako Batzar Nagusiek kanonizatzea eskatu zioten aita santuari eta baimena eskatu zioten uztailaren 31n otoitz egiteko eta meza emateko probintziako apaiz guztien alde. 1620an, kanonizatu baino bi urte lehenago, Zumaian elkartuta zeuden Batzar Nagusiek hartu zuten probintziako seme leinargi eta santua zaindari babesletzat, behin betiko, eta erabaki zuten haren omenezko jaia uztailaren 31n ospatzea, trantsitu loriatsua izan zuen egunean; eskaria Iruñeko gotzainari egin zioten eta, halaber, eliza-agintariaren oniritzia jaso zuten.

Badirudi Gipuzkoako klero zati batek, batez ere sekularrak, ez zuela ondo hartu probintziako foru agintarien esku-hartzea Loiolarekin eta Konpainiarekin zerikusia zuten elizako gaietan. Gorosabelek dio ez zutela beren burua horren arabera jokatzera behartuta ikusten, nahiz eta elizako beren goragokoek onartutako kontua izan. Hortxe hasi zen

---

<sup>8</sup> GAO, JD S 651, 11.

Gipuzkoako klero zati baten eta Konpainiaren arteko tirabira, XX. menderaino luzatu dena, bestalde. Esan daiteke San Ignazio Gipuzkoako elizarena baino santuago izan dela probintziarena berarena.

1622an, kanonizatzearekin batera gauzatu zen estasia. Gipuzkoak bazuen bere santua, eta Tolosan bildutako Batzar Nagusiek handikiro ospatu zuten: elizkizunak, musika plazetan, suziriak zeruetan, arkabuzen tiro-hotsak, zezenketak, sonetoak, bertsoak, hieroglifikoak eta koplak latinez, grekoz, gaztelaraz eta euskaraz. Harrezkero, San Ignazioren erretratu baten babesean bilduko ziren Batzar Nagusiak, eta probintziako parrokia guztietan San Ignaziori eskainitako aldare bat eraikitzeke agindua ere eman zen. Berrero ere, klero sekularrak ez zituen oso gustura hartu agintarien “mutur-sartzeak”, betiere oldartzeko prest, bere botereari euste aldera.

Behin eta berriz berriztu zuen emandako botoa probintziak eta 1633an Calahorrako gotzainak ere berretsi zuen —orduan Deba bailaran zuen eskumena—. Bien bitartean jesulagunek erdi-eraitsita zegoen Loiolako dorretxea haien gune egiten saiatu ziren. 1603an adierazi zuten ingurua erosteko nahia lehenengo aldiz. Mende horren bukaeran hasi ziren Santutegia eta inguruko gehigarriak eraikitzen; Gipuzkoan egindako Italiako barrokoaren txertaketa bat izango zen, bakarra Espainian. Carlo Fontana “Berniniren ikasle aurreratuenak” (Hager, 1991: 85-93) egindako marrazkietan oinarriturik hasi ziren eraikina egiten, eta harrezkero hainbat obra-maisuk zuzendu zituzten lanak 1767ra arte, hots, jesuitak lehenengo aldiz Espainiatik kanporatu arte.

Baina barroko usaineko hormak ez ziren nahiko Gipuzkoarentzat. Oraindik gehiago goretsi nahi zuten beren “patroi haundia”. 1710ean, Batzarrek aho batez egin zuten Zumaian behin betiko botoa, barau egingo zutela urtero uztailaren 30ean, San Ignazioren trantsitu egunaren bezperan, eta promesa bete ezean, bekatu mortala izango zela<sup>9</sup>. Orduan ere agintari zibilek hartu zituzten erlijio arloko erabakiak; izan ere, artean, probintziarentzat eta erakunde probintzialentzat, batasun banaezina osatzen zuten San Ignaziok eta Gipuzkoak.

Alabaina klero sekularrak ez zuen iritzi bera, eta ez zen kontuan hartu haiek pentsatzen zutena. Horri erantzunez, Artziprestazgo Nagusiko elizgizon gehienek intsumisotzat aurkeztu zuten beren buruak. Jarrera horrekin batera mende laurden baino gehiago luzatuko zen auzi luze bat hasi zen probintziako agintarien eta euren autonomia defendatzeko dena emateko prest zeuden elizgizon batzuen artean.

Eklesiastikoak eta legoak zeuden barau egitera behartuta, baina horietako gehienek ez zuten jateari uko egiteko inolako asmorik. Salvado de Rivadeoren txosten batera

---

<sup>9</sup> San Ignazio bezperan barau egiteko botoa lehenagotik zeuden beste biri gehitu zitzairen, Eguberri bezperakoari eta San Migel egunaren bezperakoari, hain zuzen.

jo zuten agintariek, auzia konpondu nahian. Calahorrako eta Iruñeko gotzainek berretsi izanak ez zuen inolako zirkinik eragin. Burgosen aurkeztu zuten apelazioa, eta galdu egin zuten. Nuntzioari ere aurkeztu zioten, baina horrekin ere lehengotan jarraitu zuten. Gorosabelek dio edonork pentsatuko zuela, hiru sententziak ikusita, arrazoirik ezaz jabetuko zirela eta baketuko zela giroa, besterik ez bazen, auziak eragindako nekeek eta gastuek akiturik; aitzitik, ez zen horrelakorik gertatu. Erromaraino heldu ziren apaizak, Errituen Kongregazio Sakraturaino, hain zuzen, eta Benedikto XIII.a aita santuak arrazoia eman zien.

Ez dugu sakonduko argudioetan, baina XVIII. mendean Europan zehar, alde batetik bestera zebilen kontu bat zen auziaren funtsa: erregalismoa. Kasu honetan, probintziara mugatuta, Gipuzkoako erakundeek “probintzialismoa” zen oinarria. Aita santuaren txostenean irakur zitekeen aginte zibilak halabeharrez ezarritako baraua Vatikanoren agintzeko ahalmenaren aurkakoa zela. Hori ikusita, Gaztelako Kontseilura jo zuen probintziak eta hor bai, aldeko jarrera aurkitu zuten, eta aita santuaren bula indargabetuta geratu zen.

Bien bitartean, oldartutakoen aurkako kausa kriminalak erabaki ziren: isunak, enbargoak, kartzela eta deserriratzea, besteak beste. Iruñeko gotzainak eta korrejidoreak hartu zuten parte. Oldartutako apaizek martiri izendatu zuten beren buruak. Gorosabelek dio berriz hasi zirela herria aztorarazten. Hiletetan sekulako mozkorraldiak izan zirelako salaketak edota apaizen eskumikuak tarteko, azkenean, 1737an, bi jauntxo eta bi apaiz oldarturen arteko itunarekin egin zen bakea. Probintziako erregalismoa garaile.

XVIII. mendeko Gipuzkoako kapitalismo komertzialak enpresa garrantzitsu bat izan zuen: Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra. 1741ean oso “zori oneko” itsasaldia izan zuen enpresako itsasontzietako batek (jesuitak berak ere akzionistak ziren), eta San Ignazio izendatu zuen zaindari Errege Konpainiak; gainera, zaindaritzat hartzearekin batera 15.000 erreale eman zituen aldare nagusiko zilarrezko San Ignazio egiteko<sup>10</sup>. Ez zegoen pitzadurarik probintzian.

Lagundia zintzoa zitzaion probintziari. Bitxia da 1627an Igokundeko San Martin beatifikatu zutenean, Batzar Nagusiek bigarren zaindaritzat proposatzea hura. Lagundia berehala jarri zen martxan lehiakidearen aurrean, eta Batzar Nagusiek erabaki zuten San

---

<sup>10</sup>GAO, JD SM 42, 2.

Loiolako bitxitzat hartu zen estatua. 1793an Frantziako Konbentzioaren tropak bertaratu zirenean, estatua erregeak berak hartu zuen San Ildefonsoko Granjak. 1808ko okupazioan aurrea baratzean lurperatuta egon zen eta, ondoren, nora, eta Cadizera eraman zuten babesera; itzelezko harrera egin zioten, Kapitain Jeneralak berak ere egin zion ohore. Miguel Antonio Zumalacarreki diputatu liberal eta Gorteetako presidente zen gipuzkoarraren laguntza izan zuten Gipuzkoaren altxorra gordetzeko. Beste paradoxa bat zerrendarako. 1815ean Donostiako Koruko Amabirginaren elizara eraman zuten eta handik, 1816an jesulagunak itzuli zirenean, Loiolara. 1820 eta 1823 bitartean Azpeitiko elizan izan zuen aterpe. Absolutistak edo liberalak izan nagusi, toki-aldaketa horiek ohore guztiekin egin ziren, Kapitain Nagusi bati zor zitzaion agur militarrekin, Elizak garai hartan zuen dotoreziarekin eta herritarrek bide bazterretan zeudela (Múgica, 1918: 351 eta Lasa, 1977: 87-101).

Ignazio izango zela zaindari bakarra. Horrela betiko itxita geratu zen zaindariaren inguruan eztabaidatzeko aukera.

Kleroaren kontrako prozesuan, aita Larramendik parte hartzeko eskatu zuen probintziak, erreginarean aurrean bitartekaritza lana egin zezan probintziaren jarreraren alde, betiere. Etsita, honela idatzi zion Manuel Ignacio de Aguirre idazkariak: “Veinte y un años ha que la tenacidad de pocos clérigos de uno de los tres arciprestazgos de que se compone mi clero, perturba la paz de mis havitadores” (Larramendi, 1990: 43-47). Izan ere, hala zen Larramendi, foru erakundeen eta Lagundiaren arteko itunaren irudi garbia. Loiolan emandako 33 urteak emankorrak baino emankorragoak izan ziren Gipuzkoa eta haren foru izaera goresteke.

Aipatutako itunari egindako monumentua izan zen haren lana: *Corografía de Guipúzcoa*. Larramendiren esanetan, erlijioa eta probintziaren politika gauza bakarra ziren. Klero sekularrari eta jauntxoei egin zien eraso, baina Gipuzkoa metal preziatuenen pare jarri zuen: “rincón aseado y limpio como la plata y el oro”. Batzar Nagusien sasoian bi elizkizun egiten ziren: Sortzez Garbiaren izenean ematen zen lehenengo meza eta bigarrena San Ignaziorenean, patriarka handiarengatik, Larramendiren hitzetan (Larramendi, 1969: 97 eta 309). 1876an foruak kendu ziren arte, ohiko ekitaldi klasikoa izan zen “prozesio forala”: prokuradoreak, probintziako agintariak, zaindarien dotore hornitutako estatuekin eta probintziaren estandarteekin.

Baina foruak desagerrarazi arren, sinboloen indarra ez zen desagertu. Antoine d’Abbadieren ideiek eta diruak bultzatutako lore-jokoak hainbat aldiz Donostian eta Azpeitian egin ostean, 1896an Foru Aldundiak antolatu zituen nekazaritza arloko lehiaketak, baina horiek ere bazuten lehenagoko nolabaiteko osagai kultural eta sinbolikoa. Ekitaldi berriak zer ziren azaltzeko, Ramón María de Lili ahaldun nagusiak esan zion Vinuesa jesuitari foru jai ahaztezinaren era berritua zirela. Baserriko nekazaritza munduari (une hartan toki guztietan zeuden pil-pilean esparru honetako lehiaketak) batu zitzaizkion “Gurutzea eta Arbola” (Gurutzea eta Foruak).

1896an Arrasaten hasi zirenetik, 1913an Tolosan egin ziren arte, 18 urtean zehar, lehiaketak euskal jai bilakatu ziren eta osagai garrantzitsua zen guztietan erlijio kutsua. Batez ere 1897an, arreta berezia eskaini zitzaion ikonografia honi: meza, sermoia “otoitzaldi sakratua”, berariazko musika-lan sakroak eta foru-usadioaren arabera egindako prozesioa Sortzez Garbiaren eta San Ignazioren irudiekin, biak ala biak, goi-mailako arropa eta bitxiekin<sup>11</sup>,

---

<sup>11</sup>Itzelezko tirabirak egon ziren 1899an, probintziaren ezaugarri ziren arropa eta bitxiak buruz. Ignacio Abadía Azkoitiko parrokiako sakristauak 125 pezeta eskatu zizkion Diputazioari ondare hori zaindu eta garraiatzeko. Gogorarazi zuen bere aitari agindu ziotela kopuru hori 1862an Gipuzkoako Batzar

estandarte, mazolari eta mikeleteekin. Horiekin guztiekin batera probintziako banderak eta armarriak<sup>12</sup>. Probintziako agintariak jai-egunetako trajea soinean eta bikornioa buruan zutela; elizgizonak jantzi dotoreenekin: baserritarrak, brusarik gabe, trajea, gorbata eta alkandoraren goiko botoia ondo itxita zeramatala.

1896 eta 1897ko lehiaketetan (Arrasaten eta Oiartzunen, hurrenez hurren), ezin bestela izan, jesuita batek egin zuen lehenengo otoitza: aita José Vinuesa S.J. donostiar ezagunak. Gero, apalxeagoak izan ziren otoizlariak, hau da, ez ziren Lagundikoak izan: Txomin Agirre, Resurrección M<sup>a</sup> Azkue, Mateo Múgica, zenbait frantziskotar eta abar. Horietako baten batek “Euskal Abraham” kategoria erantsi zion San Ignaziori. 1899an, Zumarragan, Sabino Aranaren konfesorea zen Serapio Mendia jesuitak izan zuen sermoiaren ardura (Berriochoa, 2008). Haren apologia egiten zutenen arabera ez zegoen inolako kontraesanik Ignazioren nortasun ezberdinen artean: santuaren bihotzean biltzen ziren izaera baskongadoa eta espainola eratzen dituzten bertute guztiak, betiere bikaintasunaren maila gorenean. Are gehiago, «si San Ignacio de Loyola fue en su cuna hijo de Azpeitia, acabó por ser y continúa siendo en sus hijos ciudadanos de todas las naciones, adalid invicto de la fé en toda la redondez de la tierra»<sup>13</sup>.

Hori hala bazen ere, gipuzkoarrentzat eta euskaldunentzat ez ezik, euskal nazionalistentzat ere ikur eta erreferente bihurtu ziren jesuitak eta San Ignazio. 1895eko San Ignazio eguna aukeratu zuen Sabino Aranak bere alderdiaren, hots, Euzko Alderdi Jeltzalearen ibilbidea hasteko. Ez zen kasualitate kontua izan. Ez da hutsaren hurrena izan urteetan zehar Urduñako jesuiten ikastetxearen edo Deustuko unibertsitatearen eragina zenbait euskal abertzale ezagunengan: Sabino Arana edo Jose Antonio Agirre, Karlos Garaikoetxea, Jose Antonio Ardanza edo Xabier Arzalluz ditugu, besteak beste, horren adierazle.

Baina Loiola ez zen abertzaleentzako bakarrik hesitutako lurraldea. Integrisimo politikoak ere bertan izan zuen zutabea; gauza bera errepika daiteke hainbat karlista edo politikari monarkia zaleri buruz ari garenean. Are gehiago, sozialista batzuei ere dir-dir egin zien Ignazioren argitasunak. Errepublikazaleak izan ziren xarma politiko probintzial eta euskaldun horri muzin egin zioten bakarrak.

---

Nagusiek. Ogasun Batzordeak, aldiz, esan zuen 1862 baino lehen Brigidek dohainik egiten zutela lan hori, eta, hortaz, 80 pezeta ordainduko zirela garraio-gastuetarako. Hala ere, Feliciano Echeverría diputatu errepublikazaleari gehiegi iruditu zitzaion eta kopurua 50 pezetara jaitea proposatu zuen. Joaquín Pavía kontserbadoreak, ordea, iraganeko garaiei eutsi nahian, gogorarazi zion antzinako erara egin beharra “como se hacía en nuestras venerandas juntas forales”. Garbi zegoen garai foralekiko lotura.

Registro de las Sesiones de la Diputación (RSD), 4<sup>a</sup> sesión, 16-5-1899 eta 5<sup>a</sup> sesión, 17-5-1899.

<sup>12</sup> RSD, 3<sup>a</sup> sesión, 4-11-1897.

<sup>13</sup> 1885ean Loiolako lanei jarraipena emateko argitaratutako orriaren zatia. AHL 1-4-3 Tomo IV doc. 107.

Jesusen Bihotzarekiko debozioa izan zen Lagundiaren beste guda sinboliko bat (Louzao, 2010). Gure herrian, jendea atxiki nahian egindako oso ekimen gutxik izan dute horrelako arrakasta. Aita Larramendiren arabera, XVIII. mendearen erdialdean sartu berria zen Jesusen Bihotzaren gurtza. Harrezkero, hurrengo bi mendeetan, Jesusen Bihotzaren irudia jarri zen herrietan eta hirietan, etxeko ateetan eta bakardadean zeuden baserrietan: “etxe honetako txoko guztiak bedeinkatuko ditut” beteko zen itxaropenean, prestatu zioten toki berezia etxe askotako sarrera edo jangelan tronuan eseritako Jesusen Bihotzari. Udalek, erakunde zibilek, ikastetxeek, lantegiek eta abarrek hartu zuten babesletzat eta eskaini zioten leialtasuna. Gaur egungo begiralekutik oso urruti ikusten dugu Jesusen Lagundiaren lorpen hori, baina sendo iraun zuen gutxi gorabehera orain dela mende erdiraino. Loiolako San Ignaziok eta haren ondorengoek bildutako altxor sinboliko izugarriaren beste ale eraginkor bat.

#### 4.- Loiolako santutegiaren jabetzaren nondik norakoak denboran zehar

Santua eta bere etxea esan dugu. Santutegiaren nondik norakoak ezagunak dira, 1880 artekoak behintzat<sup>14</sup>. Eneko Lopez Loiolakoa, Ignazio Santua, Jesusen Lagundiaren fundatzailea bizirik zegoela, hainbat lagun hasi ziren bisitatzen haren jaiotetxea, familiaren dorretxea. Ignazio hil ondoren, 1556. urtean, santutzeko prozesua abiatu zenean ugaritu egin ziren bisita horiek eta Lagundiak behin eta berriro erakutsi zuen Ignazio santuaren jaiotetxea eskuratzeko grina. Tartean, familiako leinu nagusiak abizena galdu zuen eta Gaztelako handikien eskura pasa zen haren jabetza. Dorretxea eta inguruko lurraldeak Alcañices eta Oropesako markesen (Juan Enríquez de Borja eta Ana María Lorenza de Loyola y Coya, Peruko inka nobleziako alaba berau) ondare bilakatu zen.

1681. urtean Espainiako erreginak, Austriako Marianak, Loiolan jesulagunen ikastetxe bat eratzeko asmoa azaldu zuen. Asmo horretan, beharbada, zerikusiren bat izango zuen bere konfesoarek, Mateo Moya jesulagunak hain zuzen. Erreginaren eraginez, bere semeak, Carlos II.a erregeak, Oinaz-Loiolaren maiorazkotik banandu egin zituen dorretxea eta hainbat sail eta Lagundiari eskaini zizkion. Azkoitian ordurako jesulagunek zuten ikastetxeko buruak, aita Laskibarrek, hartu zuen jabetza Gipuzkoako korrejidorearen eskutik. Horretarako “se paseó en todas dichas tierras, huerta y sitio, arrancando hierbas y quitando ramos de árboles, y haciendo otros actos de posesión”. Eskualdatzea ez zen dohainik izan: dohaintzaren truke pareko errenta jasotzeko modua eskatu zuten markesek, eta Lagundiak eman zien errenta

---

<sup>14</sup> Guk hemen Eguillorren (1991) kontakizuna jarraituko dugu, beste egile batzuen ere kontuan izango dugun arren. Ikusi amaierako bibliografia.

hura. Dorretxeaz gain inguruko hainbat lur erosi zituen Jesusen Lagundiak ikastetxea eta baratza osatzeko. Loiolako familiak jarritako baldintzen artean bi azpimarratuko ditugu. Lehenak dorretxea ezin zela eraitsi eskatzen zuen. Bigarrenaren arabera, Alcañices eta Oropesako markesek eskubidea zuten Loiolan meza entzuteko eta horretarako gela (Maiorazkoaren Etxea) eta sarrera berezi bat eraiki behar zen elizaren albo batean, hormen barruan (XIX. mendean altxatu zen etxea santutegiaren ezker aldean, Azpeitia aldera begiratuta). Beste era batera esanda, santutegiaren zati batek handiki familiarena izaten jarraitu zuen. Salmenta egin arren, ezin ahaztu inguruko lur gehienak ere markesenak zirela. Bestalde, Enríquez de Borja familiak garai hartako gorabeherak izan zituen: premu falta, besteak beste, eta Loiolatarren izena erabat galdu zen. 1741ean, Granada de Egako dukeek hartu zuten leinuaren buruzagitza. Alfonso Martos Carrión y Azlor de Aragón da oraingo nagusia. 2006. urtean, dukeak bere etxearen zati handi bat aldundiari eman zion santutegiaren barne lotura errazteko eta egitura osoaren museo izaera indartzeko.

1682an, Madrilen Errege Patronatu bat eratu zen ikastetxea sortzeko<sup>15</sup> eta haren kudeaketa, eta praktikan baita finantziazioa ere, Jesusen Lagundiaren esku geratu zen. Ondasun eta dohaintza ugari jaso zituzten jesulagunek, gipuzkoarrenak bereziki, horietako asko Amerikatik bidalita, eraikina altxatu ahal izateko. 1706an, Loiolaren menpe zeuden, besteak beste, 27 baserri, 4 etxe, 3 errota eta errementeria bat, eta horiez gain Lagundiak bazituen beste diru-iturri batzuk, hala nola, Real Compañía Guipuzcoana de Caracaseko akzioak (Astiazarain, 1988: 27-30). XVIII. mendean zehar Lagundiak hainbat baserri eta lur saldu eta erosi egin zituen santutegiaren eraikuntzaren gastuei errazago aurre egin ahal izateko. Ondasun horiek Gipuzkoa osoan zeuden barreiatuta, Oiartzundik hasi eta Debara arte.

1689 hasi ziren ikastetxea eta eliza eraikitze lanak eta XVIII. mendearen hasieran amaituta zeuden ezker aldeko hegala eta elizaren zati handi bat. Dorretxea, ezaguna denez, ikastetxearen hormen barruan geratu zen eta bi aldeetako paretak ikastetxearen egiturari txertatu ziren. 1767. urtean, Carlos III.a erregeak Jesusen Lagundia Espainiatik kanporatu zuen, eta bost urte geroago, Clemente XIV.a aita santuak desegin zuen Lagundia 1814. urtera arte. Tarte horretan, Loiolako ondasunen ardurua Espainiako agintarien esku geratu zen. 1816. urtean itzuli ziren jesulagunak Loiolara, baina, iraultza liberalak zirela eta, beste hainbatetan kanporatu zituzten XIX. eta XX. mendeetan, nahiz eta behin eta berriro itzuli euren sortzailearen jaiotetxera.

---

<sup>15</sup> Erabaki hori benetan berezia izan zen eta ondo erakusten du Lagundiaren indarra eta Hasburgo etxeak eman zion babesa. Izan ere, garai hartan, hiru errege patronatu baino ez zeuden erresuma osoan, El Escorialekoa eta Madrileko Descalzas eta Encarnación monasterioetakoak. Patronatuaren ondorio dira Loiolako kupulan dauden Habsburgotarren eta Borboitarren errege armariak





AHN, Madrid, CONSEJOS,MPD.101

Dena den, gorabehera horiek eragin zuzena izan zuten Lagundiaren ondasunetan. Era horretan, 1821ean, Espainiako ogasunaren arabera<sup>16</sup>, Lagundiak 19 zensu (mailegu edo ordainketa era), 10 kapital eta 19 lursail eta oruberen jabe zen. Honakoak ziren jesuiten eskuetan zeuden etxe eta lurak:

HERRIA	ONDASUNA
Azpeitia	Santutegia eta ikastetxea
	Etxe bat
	Etxe bat
	Loiolako ostatua
	Ikastetxearen baratzea
Azkoitia	Etxe erdi bat
	Etxe bat
Deba	Baserri bat
	Etxe bat eta estrepadia
	Etxe erdi bat

<sup>16</sup> Archivo Delegación de Hacienda de San Sebastián, 2880. kutxa, Mutiloak (1982: 95 eta 685) aipatua.


	Etxe erdi bat
	Gaztainadia
	Mintegia
	Gaztainadia
Mutriku	Errota erdi bat
Oiartzun	Baratze bat
	Baratze bat
	Mendi zati bat
	Garo-lekuak

1849an, ordea, Diego Novoa Garcíak (estatuaren finken ikuskatzailea euskal probintzietan) beste jabetza batzuk aurkitu zituen, Bergarako Errege Mintegiaren izenean zirenak eta haren ustez Loiolarenak zirenak. Beste 12 baserri eta etxe agertu ziren agiri horretan, gehienak Antzuolan, eta hiru Bergaran<sup>17</sup>.

1835. urtean, santutegiaren eraikinaren jabetza, elizaren ondasunen desamortizazioaren ondorioz, behin betiko erakunde publikoen esku geratu zen, Granada de Egaren etxea izango zena izan ezik. Gipuzkoa karlisten esku zegoenez, jesulagunek bertan jarraitu zuten 1840ra arte. Handik gutxira hasi zen santutegiaren ondasunen salmenta. Ez dugu egin salmenta horien jarraipen osoa, lehen aipatu dugunez asko zirelako dohaintza eta erosketen bitartez jesulagunen esku zeuden etxe, baserri eta lurak, eta ez delako beti erraza izaten arrastoa jarraitzea. Santutegiaren ingurukoak baino ez zaizkigu interesatzen. Eraikinek eta lurrek bide desberdinak jarraitu zituzten<sup>18</sup>.

<sup>17</sup> Archivo Hacienda de San Sebastián, 34. kutxa, Mutiloak (1982: 99 eta 686) aipatua.

<sup>18</sup> Gipuzkoako Probintzia-Artxibo Historikoak gordetzen du orain Donostiako Ogasun agiritegia, baina bertan salmenta horien apur batzuk baino ez ditu gordetzen. Salmenta-enkanteen serie bat dago, erabat antolatu gabe oraindik, eta han ez dugu aurkitu Loiolaren inguruko ondasunen salmentaren berri, bai; aldiz, Oiartzungo baserriaren enkantearena. Antza 1968an espediente ugari suntsitu egin zituzten, tartean Mutiloak erabilitako batzuk.



AHN, Madrid, CONSEJOS,MPD.102

Eskura ditugun datuen arabera, lurren erosle garrantzitsuen Genaro Etxebarria gasteiztarra izan zen, baina berehala Jose Miguel Arrieta-Maskarua bizkaitarrari saldu zizkion 1857an. Erosle esanguratsuak ziren biak, Etxebarria Arabako Ahdun Nagusi ordean izan zen

1852 eta 1855 bitartean eta ondoren Espainiako Kongresuko eta senatuko kidea. Antzeko ibilbidea egin zuen Arrieta-Maskaruak, biak ziren foruzale kontserbadoreak (bizkaitarra karlista bilakatu zen bere azken urteetan) eta eliza katolikoarekin harreman estua zuten<sup>19</sup>. Hortaz, susma genezakeen ez zela ausazko erosketa izan. Susmo horiek indartu egin ziren 1857an Loiolako ostatuetako maizterrei errentak santutegiko erretorearen esku jartzeko agindu zienean Arrieta-Maskaruak eta, are gehiago, 1886an, bizkaitarra hil ondoren, bere testamentuan haren 50.000 pezetako zor bat agertu zenean. Hartzailea Esteban Zurbano Monzon zen, Gipuzkoako handikia hau ere, ahaldun nagusia izandakoa 1875ean, karlistekin, eta kongresuan Gipuzkoako ordezkaria izandakoa hainbat alditan. Zor hori ordaintzeko testamentuak Esteban Zurbanori Loiolako ostatuak eta santutegi atzeko baratzea eman zizkion. Ezin zitekeen kasualitatea izan, eta Zurbanok berak argitu zigun gertatutakoa:

En descargo de mi conciencia y con ánimo de evitar en el porvenir cualquiera errónea inteligencia respecto del documento en que se me adjudica la propiedad de la huerta y hospederías de Loyola con sus dependencias, de mi propia y espontánea voluntad consigno las siguientes declaraciones:

1ª. que si bien antes aparecían compradas dichas fincas por el difunto D. José Miguel Arrieta y Mascarua, la tal compra se efectuó con el producto de limosnas y otras cantidades entregado al mencionado Señor para ese objeto.

2ª. que su fin era adquirir y conservar las expresadas propiedades para la Compañía de Jesús, quedando desde entonces los Superiores de la misma Compañía, como en efecto quedaron, en el perpétuo derecho de disponer de ellas en pleno dominio y propiedad.

3ª. que al hacerse el traspaso de las mismas a mi favor en compensación de una deuda contra el referido Sr D. José Miguel no se inmuta en nada la condición de las cosas respecto al pleno y perfecto dominio que la Compañía, como es dicho tiene.

4ª. que mientras los Superiores de la misma no dispongan otra cosa, yo y mis sucesores mantendremos en buen estado las expresadas propiedades, y su producto, lo invertiremos en lo que el M.R.P. general de la citada Compañía de Jesús disponga. Segura 4 de febrero 1887. Esteban de Zurbano.

Esta mi declaración para su mayor fuerza y vigor, y a fin de que en ningún tiempo puedan albergar mis herederos y sucesores derecho alguno a los referidos bienes, va firmada también por mi mujer Dª María de los Ángeles Alcibar y mis hijos, D. Luis y Dª Dolores<sup>20</sup>.

Desamortizazioa ezinbestekoa zenez, Euskal Herriko katolikoek talde batek era hori asmatu zuen santutegiaren inguruak Lagundiaren esku jarrai zezan. Isilekoa izan arren, nabarmena da aldundiaren eta Lagundiaren arteko lotura eta harreman estua.

Santutegiaren eraikinari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuratu zuen. Esparteroren gobernuak 1842ko udan onartutako dekretuak aukera ematen zuen, besteak beste, komentuen orubeak tokiko agintarien esku uzteko, onura publikoa eskaintzearen truke, hots, ospitaleak, umezurztegiak, ikastetxeak edo antzeko zerbitzuak sortzeko. Gipuzkoako Aldundiak santutegia eskatu zuen zentzategi edo erreformatorio bat jartzeko, eta hala onartu zuen gobernuak 1843ko otsailean. Ikastetxea eta eliza aldundiaren esku geratu ziren, eliza

---

<sup>19</sup> AHL, 1-5-17.

<sup>20</sup> AHL,1-5-17.

zaintzeko konpromisoarekin, baina inguruko lursailak salmentan jarri zituen gobernuak. Dena den, ez dirudi aldundiaren asmoa gauzatu zenik, hiru urte geroago, 1846an, aldundiak eskari berri bat egin baitzuen eraikinean museoa, liburutegia eta zenbait agiritegi kokatzeko. Urte horretako azaroan onartu zuen eskaria Isabel II.a erreginak eta harrezkero, zalaparta batzuk gorabehera, aldundiaren esku dago santutegiaren jabetza eta zaintza-lanen ardura<sup>21</sup>. 1852an itzuli ziren jesulagunak Loiolara, misiolari-eskola bat sortzeko aitzakian, nahiz eta denbora gutxirako izan, 1854an kanporatu baitzituzten berriro, bi urterako, eta gauza bera gertatu zen 1868an.

Berezarkuntza garaian, 1880tik aurrera, herrialdeko agintari zibilek jarrera abegikorra erakutsi zuten Lagundiarekiko (Rubio, 2003) eta 1885. urteaz geroztik aldundiak, zeharka, jesuiten esku utzi zuen santutegiaren erabilera. Aita Muruzabalek zehaztu zuen Loiolaren eraikuntza-lanak amaitzeko egitasmoa. Horretarako «había hablado con las personas más notables de la Diputación Provincial, cuya mayoría era completamente católica y adicta a nosotros, para preparar el camino» (Eguillor, 1988: 247). Ondoren, Gipuzkoan ezagunak ziren hainbat pertsona esanguratsuk Loiolako Obren Elkargoa osatu zuten (Compañía de las Obras de Loyola, S.A.), «un grupo de amigos entusiastas lanzó la idea de terminar las obras de Loyola, convirtiendo así en realidad los anhelos de las juntas generales de Guipúzcoa, que habían tomado dicho acuerdo varias veces, sin poderlo cumplir de momento»<sup>22</sup>.

Falta ziren lanak amaitzearen truke, aldundiak haien esku utzi zuen santutegiaren kudeaketa<sup>23</sup>. Berehala itzuliko gara elkargo horretara; erabat argi azaltzen ez bazen ere, hitzarmenaren helburua nabaria zen, santutegia jesuiten esku egongo zela bermatzea:

Art. 4º. La casa de Loyola, su iglesia y demás dependencias deberán ser destinados al culto de la Religión o a objetos de educación y beneficencia, conforme a la misma religión.

Art. 9º. A partir de los 60 años, la diputación se compromete a no alterar el destino religioso que en la actualidad tiene la Casa de Loyola y a que la orden religiosa fundada por San Ignacio de Loyola sea en todo tiempo, estando admitida o tolerada en España, la que exclusivamente habite la Casa de Loyola.

---

<sup>21</sup> Gipuzkoako Probintzia-Artxibo Historikoa, 2827 kutxa. Administración de propiedades, fincas y censos. Relaciones de fincas. Excepciones

<sup>22</sup> GAO, JD S 651,11.

<sup>23</sup> *Gaceta de Madrid*, 1885-2-26. Elkargoaren sorrerari buruz, ikusi AHL, Loyola Historia 1940-2002. "Traducción castellana de la versión latina de la *Historia Domus (HD)* y las *Litteraeannuae*" (LA), 192-195. orrialdeak



1880. urtea gutxi gorabehera, Loiola amaitu aurretik. Koldo Mitxelena Kulturunea

Kontratua amaitzean ondasun guztiak aldundiaren eskura itzuliko ziren. Ez zen horrelakorik gertatu. 1932 eta 1937 bitartean, jesulagunak Loiolatik kanpo egon baziren ere — Manuel Azañaren gobernuaren aginduz Lagundia desegin egin baitzuten—, lehen hitzarmenaren iraupena 1945 artekoa izan zen; baina berritu egin zen beste 60 urtez, 2005. urtera arte. Ez da harritzekoa, kontuan hartuz gero aipatu dugun elkargoaren buru izandako Agustin Brunet zela garai hartan aldundiko presidentea<sup>24</sup>. 2005ean, berriz, 2075. urtera arte luzatu zen Loiolaren maiztertza<sup>25</sup>. Aldaketa esanguratsu bakarra gertatu da auzi horretan, XX. mende amaieran, 1991. urtean, Ignazio Santuaren jaiotzaren bosgarren mendeurrena zela eta, aldundiak Jaiotetxea Jesusen Lagundiari eman zion, konponketen lanen ardura hartzearen truke. Bitxia bada ere, sozialista bat (Anton Arbulu) zen garai hartan aldundian Loiolako kontuen arduraduna.

Hainbat berritze-lan egin ziren santutegian XX. mendean zehar: hasieran batzuk eta amaieran besteak, mantenu lanak kasu gehienetan, edota ingurua atontzeko beste batzuk (Linazasoro, 1986). Horietako garrantzitsuena 1991ko urteurrenaren inguruan: aldundiak hartu zuen bere gain eta dirutza handia gastatu zuten santutegiaren eraberritze lanetan (Astrain, 2000).


<sup>24</sup> GAO, JD S 651,11.

<sup>25</sup> Jon Juaristi irakasleak artikulu maltzur eta zorrotz batean nabarmendu zuenez, aldundi monarkiko batek, frankista batek eta demokratiko batek, hurrenez hurren, berdin jokatu zuten jesulagunen aurrean. *ABC*, 2005-2-13, *etc.*



1905. urte ingurua, Loiolako santutegia amaituta. Josep Thomasen argazkia.

Urrezko garaia bizi izan zuen santutegiak XIX. mendearen amaieratik aurrera, 1932. urtean berriro kanporatu zituzten arte. Harrezkero ez ziren erabat itzuli 1940. urtea hasi arte, eta beste hogeita hamar urtez beste loraldi bat bizi izan zuen Loiolak jesulagunen eskutik. Santutegiaren lehen fasean, XVIII. mendean, ez zen benetako ikastetxerik egon Loiolan, eraikina bera ere altxatu gabe baitzegoen, horren lekuko dugu 1767an kanporatu zituztenean 17 jesulagun baino ez izatea bertan. Ikastetxea birsortu ondoren, 1880tik aurrera, askok jo zuten bertara. 129 lagun bizi izan ziren urte horretan eta 117 1906an (Revuelta, 2008: 595 eta 653). Horretaz gain, gogo-jardunak zirela eta ehunka lagunek egiten zituzten astebeteko egonaldiak bertan eta askoz gehiago ziren Euskal Herri osotik bertara hurbiltzen zirenak. Turista ugari ere helmugatzat hartu zuten. Ikasketek, gogo-jardunek, inguruko herrietako erromesaldiek eta kanpoko buruzagi eta turisten bisitaldiek ospea eta oihartzuna eman zioten santutegiari (Pinedo, 2004: 580).



1905. urte inguruko Loiolaren eskuliburuko orria

Jesulagunek, ikusi dugunez, hainbat jazarpen bizi izan zituzten XVIII. mendetik aurrera eta errealitate horrek indartu egin zuen Lagundiaren izaera kontserbadorea. XIX. mendeko Eliza Katolikoa, oro har, berrikuntzaren eta liberalismoaren etsaia baldin bazen, izaera hori



areagotu egin zen jesulagunen kasuan. Alvarez Bolado historialariak —jesulaguna berau— aitortzen duenez, Lagundia oso tradizionalista zen eta uzkur ikusten zuen aldaketa oro. Euren asmoen artean zera nagusitu zen: XVII. mendean galdutako jardunaldi erlijiosoak berreskuratzea. Filosofia neoeskolastikoaren jarraipenean ez ezik, kristauak mobilizatzeko obsesioan ere nabarmendu zen jesulagunen erlijiosotasuna.

Jazarriak izatearekin batera, beste ezaugarri batzuk garatu zituen Lagundiak: talde kontserbadoreekiko hurbiltasuna eta jauntxoekiko eta burgesiarekiko adiskidetasuna, esaterako. Kideek Lagundiari zioten miresmen eta maitasun ia itsua dugu beste bat. Ez ziren, halaber, XIX. mendeak ekarritako joerak. Loiolako elizaren barruko aldearen gehiegizko apaintasuna eta haren aberastasuna ikusita, Alfonso Rodríguez Gutiérrez de Ceballos jesulagun historialariak (Guadalupi, 2006: 51-52) honako hau idatzi zuen:

produce, como el de algunas otras obras tardías de los jesuitas en la península, la impresión de un fasto, de un lujo y una riqueza que fueron motivo, entre otras causas, de que al mal llamado “estilo jesuíta” se le tildase de mundano, frívolo y nada coherente con los principios de austeridad y pobreza de una orden religiosa. Pero hay que tomar en consideración que la compañía desde sus principios había sabido distinguir muy bien entre la sencillez, modestia y funcionalidad de los inmuebles destinados a la vivienda de sus religiosos, y el ornato de las iglesias consagradas al culto divino, donde todo debía ser poco para rendir culto a la Divinidad.

## 5.- Compañía de las Obras de Loyola

Arestian aipatu dugunez, 1885ean sortu zen Compañía de las Obras de Loyola izeneko elkarte anonimoa; santutegiko obrak amaitzea eta ingurua atontzea ziren haren eginbeharra. Elkargoaren jarduna aztertu aurretik, merezi du kideen aurkezpen txiki bat egitea: 14 lagun ziren eta ez nolanhikoak. Bi talde bereiz ditzakegu bertan. Alde batetik, azpeitiarrak. Santutegia udalerrian zegoenez, zentzuduna zen haiek hautatzea lanen jarraipen zuzena egin ahal izateko. Taldearen buru Ignazio Ibero Maiz zegoen. Haren familiak lotura estua zuen santutegiarekin; izan ere, bere birraitona, izen berekoa, izan zen XVIII. mendeko lanen azken arduraduna. Azpeitiko alkatea izan zen Ibero, eta zortzi seme-alabek elizaren zerbitzuaren bidea hartu zuten, hiru alabak klausurako lekaime eta bost mutilak jesulagun. Horietako bik, Jose Maria eta Cesareok, ardua garrantzitsuak izan zituzten Loiolan bertan. Beste azpeitiar bat, Juan Jose Elorza legegizona, izan zen elkargoaren idazkaria eta arduradun nagusia urte luzez. Gainerako azpeitiarrek (Fidel Muguruzak, Jose Joaquin Semperenak, Jose Luis Beristainek, Roke Aztiriak, Bizente Aizpuruk eta Lukas Etxeberriak) ez zuten hainbesteko sonarik, baina haien esku zegoen udalaren kontrola eta ondo ordezkatzeko zuten lurjabe ertainen multzoa, haietako asko zenbait baserriren jabe zelako eta besteak baserritarren eta agintarien arteko bitartekaritza lanetan aritzen zirelako. Guztiak nabarmendu ziren 1860ko

hamarkadan, Eliza Katolikoaren aldeko mobilizazioetan. Gehienak, guztiak ez esatearren, karlistak izan ziren eta horietako bat, behintzat, Roke Aztiria, Santa Kruz apaizaren taldean aritu zen denbora batez Bigarren Gerra Karlistan.

Bigarren multzoa are interesgarriagoa da. Bertan zeuden Gipuzkoako hiru foru ahaldun nagusi ohi, Ladislao Zavala tolosarra, Jose Lazaro Egaña donostiarra eta foruen garaiko azkenekoa, Juan Bautista Acilona azpeitiartutako debarra. Haiekin batera ditugu Luis Hurtado de Mendoza enpresari azkoitiarra, Ignazio Etxaide enpresari eta senatari donostiarra, Luis Maria Etxeberria ingeniari donostiarra, Ricardo Bermingham merkataria eta Eduardo Egaña abokatu. Talde honen lerratze politikoa ez zen hain nabarmena (Acilona, Bermingham eta Egañatarrak alderdi kontserbadoreko kide izan ziren, Zavala eta Etxaide, aldiz, integristak). Guztiek zuten harreman estua Eliza Katolikoarekin, baita Lagundiarekin ere.

Lehen aipatu dugun Diego Novoa Garcia ikuskatzaileak Leandro Zavala Bergarako ikastetxearen buruari eta Esteban Hurtado de Mendozari leporatu zien 1849an Loiolako ondasunak ezkutatu izana. Zavalaren ondorengoa dugu bertsolaritzaren ikerlaria izan zen Antonio Zavala jesulaguna, eta pentsa genezake elkargoko beste kide batzuen kasuan ere, abizenengatik, bazegoela lotura hori. Beraien arteko lotura ere nabarmena zen (Hurtado de Mendoza Etxaideren koinatua zen eta Acilona Zavalaren ilobarekin ezkondata zegoen), eta berebiziko tokia zuten XIX. mende amaierako Gipuzkoako elite politiko, sozial eta ekonomikoan, Luis Castellsek ondo azaldu zuenez (2010). Ladislao Zavalaren anaia, Ramon, izan zen, hain zuzen, Gipuzkoako Aldundiaren burua 1884 eta 1886 bitartean, Elkargoarekin hitzarmena sinatu zen garaian.

Elkarte Anonimo berriak 750.000 pezetako kapitala zuen, 1.000 pezetako 750 akzio, hain zuzen. Aipatutakoez gain, Gipuzkoako hainbat handiki, Jose Maria Murua bergararra (Valleko kondea), aipatu dugun Esteban Zurbano segurarra (seme bat jesulaguna izan zen), Juan Carlos Alzaa oinatiarra eta Jose Joakin Egaña bergararra daude lehen akziodunen artean. Iberok, Elorzak, Aizpuruk, Agustin Jauregik eta Pedro Aldalurrek (Azpeitiko eta Azkoitiko parrokoak azken biak) osatu zuten lehen zuzendaritza. Ondorengo urteetan Tirso Olazabal politikari karlista, Agustin Brunet aldundiaren burua 1919-1923 bitartean, Jose Maria Lizasoain ahaldun nagusia 1928-1930 bitartean eta Guibert familiakoak izan ziren elkargoaren buru nagusiak. Elkargoak, hainbat aldaketa jasan arren, 1998ra arte mantendu zen. Une horretan desegin egin zen eta beren ondasunak Loiolako Jesuita Probintziaren esku jarri zituzten geratzen ziren akziodunek, baina kasu honetan ere desegitearen inizatiba jesulagunena izan zen.

Ez da erraza zehaztea zein zen elkargoaren eta jesuiten arteko harremana, aurrerago ikusiko dugunez. Itxura guztien arabera pentsa daiteke, aurreko urteetako kanporaketa eta

desamortizazioak ikusita, elkargoa jesuiten ondasunak babesteko tresna bat zela, eraso berri bat jasoz gero ondasun horiek estatuaren eskuetara pasa ez zitezten. Elkargoak babes legala ematez gain, tresna egokia izan zitekeen diru-sarrera berriak eskuratzeko. Nabaria da, halaber, jesulagunen gidaritza elkargoaren zereginetan. Jesulagunek beraiek ez zuten arazorik gutxienez idatzi pribatuetan hala aitortzeko:

Todos estaban dispuestos a ayudarnos, pero era necesario trazarles el plan y procurarles los medios de llevarlos a cabo, pues ellos solos por sí solos poco o nada podían hacer

Aktetan behin baino gehiagotan ikusten da nola hartu zuten parte bertan, akziodunak ez izan arren. Sortu zen momentuan ez ezik, geroago ere ikusten da, noizbehinka, erlijiosoen hartu zutela inizatiba eta gero elkargoak eman ziola oinarri legala egindakoari; 1948an ikusiko dugu prozesu hori nabarmen.

Santutegiko lanak amaitzea izan zen Elkargoaren lehen ardura, mende bat baino gehiago baitzen ezkeraldeko aldea altxatzen hasi zirela, baina, lana amaitu gabe zegoen. Elkargoak kanpaina zabala bideratu zuen dirua, materialak eta eskulana lortzeko. Diruaren iturria bikoitza izan zen: zati bat, txikiena, erakunde publikoek eman zuten eta gehiena esku pribatuen bidez ordaindu zen. Herritarrak izan ziren, diru-ekarpenen bitartez eta norberaren lanen bitartez, ezkeraldeko hegala amaitu zutenak. XVIII. mendean ez bezala, lanak oso arin egin ziren. 1888. urtean santutegi osoa zegoen amaituta, baita Granada de Egaren etxea ere. Aldundiak ez zituen bere gain hartu nahi izan orube horren lanak eta dukeak auzi bat jarri zuen aldundiaren kontra eta irabazi ere egin zuen. Ez zen gertatutako auzi bakarra izan; izan ere, 1885ean liberalek aldundian zuten nagusitasuna berreskuratu zuten eta, antza, diputazioko arkitektoa, Manuel Etxabe, aldatzen saiatu ziren. Elkargoko kideek eta jesuitek (aita Legarrak) hainbat gestio egin zituzten bere horretan mantentzeko, erantzukizun zuzena zuelako Loiolako lanetan<sup>26</sup>. Bestalde, liberalak ez ziren ausartu aldundiak Loiolako lanetarako agindutako diru-laguntza kentzen<sup>27</sup>. 1888an amaituta zegoen eraikuntza; hala ere, hurrengo urteetan zenbait konponketa-lan egin ziren kanpoko zelaietan, santutegian, jaiotetxean eta eskuinaldeko hegalean. Esanguratsua da, halaber, garai horretatik aurrera eta urte luzez Loiola ez zela azaldu aldundiak egindako bere ondasunen inbentarioetan<sup>28</sup>.

1916. urtean proposamen berri bat plazaratu zuen Loiolako Elkargoak: santutegia eta Azpeitia lotzen zituen errepidea eraldatzea. XVIII. mendeaz geroztik Loiolatik herrira joateko Urola ibaiaren eskuinaldean zegoen bidea jarraitu behar zen, eta ez zegoen perspektiba

<sup>26</sup> Archivo de la Casa Zavala. Correspondencia, 54.5.


<sup>27</sup> Archivo de la Casa Zavala. Correspondencia, 58.11.

<sup>28</sup> Ikusi adibidez, Inscripción en el Registro de la Propiedad de las fincas de la Diputación, 1886-1916, GAO, JD T 323,7.

zuzenik santutegiaren eta herriaren artean. Horrek nolabait eragozten zuen elkargoaren asmoa:

en todo tiempo ha sido aspiración de los habitantes de esta región, no solo evitar que una vecindad más o menos molesta pudiese ensombrecer la grandiosidad del Santuario de Loyola, sino también hermosearlo con su severidad, para cuyas aspiraciones no solo se ven aquellos influenciados por el ascendiente moral y religioso del mismo sino también por la importancia que la Casa-Solar de San Ignacio de Loyola tiene en la historia de Guipúzcoa<sup>29</sup>.

Egitasmo horrek hainbat lan eskatzen zituen: errepide berria egitea Azpeitiko aldean, zubia altxatzea Urola ibaiaren gainetik eta ordura arte santutegi aurrean zeuden hainbat artosoro lorategi bilakatzea. Egitasmoa gauzatu ahal izateko, ezinbestekoak ziren baimenak, lurrerosketak eta dirua. Ez zen Gipuzkoaren ardura bakarrik. Proposamenen bultzatzaileek lana santua eta Hego Euskal Herriaren lau lurraldeen arteko lotura indartzeko xede zuten: Gipuzkoaren Ibilbidea deituko zen errepide berria, Bizkaiko Zubia izena jasoko zuen zubiak eta Arabako eta Nafarroako Emparantzak irekiko ziren Santutegiaren aurrean.




1916. Loiolako ibilbidearen planoak. Gipuzkoako Artxibo Orokorra JD T 458.

Baimenek ez zuten arazo handirik sortu. Karlisten eta integristen eskuetan zegoen Azpeitiko udala; Elias Azpiroz izan zen alkatea 1916 eta 1918 bitartean eta berau izan zen asmoaren bultzatzailea eta arduraduna. Aldundia zen santutegiaren jabea, eta erakunde horretan eztabaida gehiago egon arren ez zen lanetarako eragozpenik sortu. 250.000 pezetakoa izan zen aurrekontua eta Gipuzkoako Aldundiak 50.000 jarri zituen. Ez da harritzekoa, besteak beste kontutan izanik orduko presidentea Ladislao Zavala Echaide zela, hots, Elkargoko buruzagien ahaide zuzena. Horren ondoren, Jose Maria Orbe Gaytan de Ayala, Valde-Espinako markes karlista izan zen Gipuzkoako Aldundiko burua eta geroago, 1924ra arte, Julian Elorza Aizpuru azpeitiarra, karlista berau ere eta Juan Jose Elorza Compañía de Obras de Loyolako sustatzaile nekazinararen semea. Arazoak limurtzeko Fermin Lasala ministro ohi dinastikoa zen lan horien bultzatzeko Gipuzkoan eratu zen batzordeko burua eta mahaikideen

<sup>29</sup> GAO, JD T 458, 3.

artean ohiko karlistez eta integristez gain, monarkiko kontserbadoreak (Jorge Satrustegi) eta jeltzaleak (Aniceto Rezola) zeuden. Tirso Olazabal buruzagi karlista zaharra zen elkargoaren burua garai hartan.

*Homenaje a San Ignacio de Loyola conmemorando el cuartio centenario de su herida en Pamplona*



Proyecto de la Avenida de Guipúzcoa, Plazuelas de Alava y Navarra y Puente de Vizcaya en Loyola

1916. Egitasmoaren irudia. AHL 1-5-8.

Lurrak behar ziren egitasmoa gauzatzeko, eta Fructuoso Elorza arduratu zen jabeekin hitz egiteaz eta lurrak erosteaz. Ez zen lan erraza izan. 18 sail jarri zituen bere izenean Elorzak; horietako batzuk erosi egin zituen eta beste batzuk permuten bitartez eskuratu. Hau izan zen emaitza:

por hallarse las fincas descritas unas a continuación de otras en el orden en que se han ido reseñando o sea comenzando del Santuario de Loyola hacia Azpeitia, pueden considerarse todas ellas como constitutivas de una sola cuya descripción es la siguiente:

Terreno destinado a emplazamiento de la llamada “Avenida de Azpeitia al Santuario de Loyola” al que, principiando en las inmediaciones de la cantera de yeso de Don Cirilo Orbegozo, sigue sin interrupción atravesando el río Urola con un puente de Hormigón que descansa sobre estribos y pilas de fábrica de mampostería y sillería; quedan a continuación del mismo, a su derecha e izquierda, dos praderas que llegan hasta lo que se ha venido llamando siempre “Arboleda o Plazuela de Loyola” y tomando todos ellos de Este a Oeste, confina al Este terreno de la cantera de yeso del nombrado Don Cirilo Orbegozo; al Norte, la antigua carretera de Azpeitia-Azcoitia, terreno del caserío Ormaeche y el río Urola; al Sur, con sembradío de Ramón Amenabar, Cándido Orbe, Felipe Uranga, Julián Orbegozo, Marquesa de Villalegre y San Millán, del caserío Ormaeche de Don José M<sup>a</sup> Lardizabal, antepuertas de la fábrica de yeso del

mismo Cirilo Orbegozo, río Urola con la regata Siristiaga; y por el Oeste con la antigua Plazuela y Arboleda del Santuario o Basílica de Loyola y el acceso que de la carretera conduce al mismo.

La superficie de la finca, quitados el antiguo espolón y el reciente acceso a la Estación del ferrocarril del Urola, es de 310,475 a en cuya adquisición se han invertido 83.875,53 pts, con los gastos de titulación y registro.

Jabeen erlijiotasun sakona gorabehera, denek ez zituzten gogo onez hartu santutegiaren eraldaketek ekarritako berrikuntza eta kalteak; are gutxiago, itundutako errentak eta diruak ez zirela heltzen ikustean.

Erakundeen oniritzia, babesa eta bultzada ez ziren nahiko behar zen diru guztia biltzeko; Lasala eta Olazabal hil ziren (1918an eta 1921ean, hurrenez hurren), eta erraza da aurkitzea Gipuzkoako udaletako agiritegietan elkargoak diru eskean bidalitako eskutitzak, nahiz eta aurretik ere emanda eduki; Hernanik, esaterako, 2.000 pezetako dohaintza egin zuen<sup>30</sup>. Gauza bera gertatu zen beste hiru euskal probintzietan ere. 1923an zozketa erraldoia prestatu zen, 18 behi eta hiru automobil zozketatu ziren, ibilbidea amaitzeko behar zen dirua biltzeko<sup>31</sup>. Baina, zozketak ez zuen eduki uste zen arrakastarik, 421.000 pezetako irabaziak aurreikusi ziren eta 183.052,70 pezeta baino ez ziren lortu. Diru faltaren ondorioz, dezente atzeratu zen lanen amaiera.

350.605,42 pezetako gastua egin zuen elkargoak guztira, 264.239,89 pezeta lanak gauzatzeko eta 83.875,53 pezeta lurren erosketa egiteko. 11.117 pezetakoa zorra izan zuen azkenean elkargoak, huskeria. 1928an, aldundiak estali zuen zorra eta horren “truke” lurren jabetza eta ibilbidearen ardura hartu zituen bere gain. Fructuoso Elorzak elkargoaren izenean eta Jose Angel Lizasoainek, aldundiaren izenean, izenpetu zuten hitzarmena. Arestian aipatu dugunez, Lizasoain Elkargoko kidea zen eta hango buru izango zen geroago. Ez ote zegoen bateraezintasunik garai hartan?

1921ean basilika izendatu zuen Loiola Benedicto XV.a aita santuak eta horrek are gehiago indartu zuen santutegiaren ospea. Kontuan izan behar da basilika izendapena, gehienetan, katedralei emandako titulu gehigarria zela. Giro horrek, Lagundiak Loiolaren ingurua bere eskuetan jartzeko ahalegina indartu zuen. Bestetik, Primo de Riveraren diktaduraren amaiera hurbilak egoera ezegonkor bati ateak irekiko ote zizkion beldur ziren jesulagunak. Horregatik, Elkargoa josulagunen ondasunen artekari ezin hobea bilakatu zen. 1928an eraberritu zen zuzendaritza eta honako kideek osatu zuten: Agustin Brunet, Jose Urbistondo, Juan Muñoa, Pedro Mendizabal, Julian eta Fructuoso Elorza anaiak eta Jose Angel

---

<sup>30</sup> Hernaniko Udala, B-7-1/4, Signatura H275/4.

Mila esker bertako arduradun Txuso Gomezi, gure esku jartzeagatik agiri hau.

<sup>31</sup> Zozketak publizitate kanpaina handi bat izan zuen, kartel eta guzti eta garaiko egunkari guztiek eman zuten haren berri, eta Loiolaren izena zabaltzen lagundu zuten. Zozketaren prestaketa lanak, AHL 1-5-8.

Lizasoain. Lagundiak Elkargoaren izenean jarri zituen bere ondasunak. Tartean zeuden Urrestillako Zabale baserria (Ibero familiarena), Getariako Gorostidi etxea, jesulagunek oporretarako erabiltzen zutena eta Azpeitiko Magdalena auzoko etxe eta erdi, San Ignaziok ostatu moduan erabili zuena XVI. mendean. 1929ko abenduaren 24tik aurrera Loiolako Lanen Elkargoa, besteak beste, santutegiaren inguruko hainbat ondasunen jabe bilakatu zen, tartean zeuden ixtear zegoen Loyola Hotela (Jose María Ibero jesulagunaren izenean zegoena), hotelaren atzeko aldean zegoen garajerako erabiltzen zen etxetxea, gogo-jardunen etxea eta ondoko lursaila (Jose María Ibero jesulagunaren izenean zegoena) eta santutegiaren atze aldeko baratzea (Luis Zurbano jesulagunaren familiaren izenean zegoena Iberoren esku jarri arte 1927an<sup>32</sup>). Horren guztiaren helburua garbia zen:

para que la expresada Compañía de Obras de Loyola pueda más fácilmente ofrecer a la Compañía de Jesús su permanencia y mantenimiento de su actual destino del Colegio de Loyola con tal condición que pueda la Compañía de Obras de Loyola disponer libremente de ello, si en algún caso juzgase más conveniente para los fines pretendidos y sin que en modo alguno haya de añadirse nada de esas aportaciones al Colegio como adquisición del mismo, sino en cuanto se mantenga en él la actual Compañía y ésta lo desea<sup>33</sup>.



1930. urte inguruko santutegia. Posta txartela. Hijos de J. Irazu.

1932an, gobernu errepublikanoak Jesusen Lagundia desegin zuen eta, inguruko herrietan hainbat jesuita gelditu baziren ere, Loiolako ikasleek eta haien maisuek erbestera jo zuten, Belgikako Marneffe herrira gehienek. Han egon ziren 1939ra arte, Gerra Zibila amaitu arte, nahiz eta aurretik, 1937an, Lagundiaren kide batzuk Loiolara itzuli, bertako eliza irekitzera

<sup>32</sup> AHL 1-5-17.

<sup>33</sup> Libros de Actas de la Compañía de Obras de Loyola, 9-6-1928. AHL.

eta han egon zen ospitalean laguntzera. Errepublikako urteetan gobernuak ez zion jaramonik egin Elkargoaren jabetzari eta ondasun guztiak eskuratu zituen; baina berehala itzuli zion baratzea elkargoari, gauzak argitu bitartean zain zezan. 1937ko ekainaren 21ean itzuli zizkion Jose Solchaga jeneral matxinatuak Loiolako ondasunak elkargoari<sup>34</sup>. Antonio Sesé jesulagunak jaso zituen santutegiaren giltzak. 1938ko irailera arte ez zen bilduko elkargoaren batzarra, eta honela laburbildu zuen Agustin Brunetek gerra zibilak ekarritako onura:

Quando (...) más desesperanzados estábamos humanamente hablando, del éxito de nuestras reclamaciones, Dios N.S., en su admirable Provicencia, dispuso mudar radicalmente las circunstancias, y sin expedientes ni dilaciones se nos haya devuelto lo nuestro ¡Gracias a Dios!<sup>35</sup>

## 6.- Aita Gabriel Intxaurrandieta Lizarazu eta 1948ko baserri-erosketak

Jesuiten Loiolarekiko jarrera ez zuen erakutsi aldaketarik Errepublikan eta Gerra Zibilaren amaieratik aurrera. Azken denbora-tarte hori ez zen eten bat izan jesulagunek espiritualtasuna eta apostolutzat bizitzeko eran, geldialdi bat baizik. Gerraosteak handitu egin zuen jesulagunen harrotasun erlijioso, frankismoak bultzatutako harrotasun espainiarrarekin bat eginez (Rodríguez del Coro, 1979 eta O'Neill, 2001). Egia da hainbat jesulaguni debekatu egin zitzaizela Euskal Herrira itzultzea euskal abertzaleak edo euskaltzaleak zirelako, baina gutxiengo ohoragarria izan zen. Loiola ez zen salbuespena izan, eta gogotsu hartu zuten Franco bera bertan, 1955. urtean, Ignazio Santuaren heriotzaren laugarren mendeurrenaren harira<sup>36</sup>.



1939ko San Inazio eguneko prozesioa Loiolan. Koldo Mitxelena Kulturgunea

<sup>34</sup> Solchagaren emaztea, Pilar Lizasoain donostiarra zen, beharbada José Angel Lizasoainen ahaidea. Bere alaba, María del Coro Solchaga, Ladislao Zavalaren izen bereko semearekin ezkondu zen.

<sup>35</sup> Libros de Actas de la Compañía de Obras de Loyola, 15-9-1938. AHL

<sup>36</sup> Antza, Francok bere burua gonbidatu zuen ekitaldira. Honela idatzi zuten auzia santutegiaren egunerokoan, "aun cuando los PP Provinciales no le hubieran invitado expresamente", (Arraiza, 2013: 212).



Une hartan Aldundiak Gipuzkoako erakunde, elkarte eta herritarrei Loiolara joateko gonbitea luzatu zien eta handia izan zen, esate baterako, baserritarren erromesaldia. 2.000 baserritar gipuzkoarren izenean, Sindikatu Bertikaleko burua zen José Solisek ardoa eta irina eskaini zizkion santuari, Gipuzkoako bertako produktuak, nonbait. Jaurlaritzaren informazio-buletinak (*Oficina de Prensa de Euzkadik*) eman zuen gertaera horren berri, baita beste batzuen ere. Bi urte lehenago aita Gaztelumendi jesulagunari gertatutakoa ere informazio-buletin horren bitartez jakin dugu: Huescara bidali omen zuten Olatzeko basilizan, agintari zibil eta erlijiosoen aurrean, sermoia euskaraz egiteagatik<sup>37</sup>.

1943an 300 erlijioso inguru zeuden Loiolan guztira, apaiz, anaia eta maila desberdinetako ikasleen artean, eta eraikin berria altxatzea erabaki zen. Are gehiago, bertako arduradunen iritziz, toki gehiago behar zen aisialdirako edota gogo-jardunetan ari ziren pertsonen ibilaldietarako. Lan horiek gauzatzeko, ingurua berrantolatzeke eta lorategia handitzeko jesulagunek lursail ugari erosi edo eskuratu zituzten. Wikipediaren gaztelaniazko bertsioak lerro gutxitan eta tonu neutroan azaltzen du gertatutakoa ([https://es.wikipedia.org/wiki/Santuario\\_de\\_Loyola](https://es.wikipedia.org/wiki/Santuario_de_Loyola)):

Al este del santuario, detrás de la basílica, se extienden los jardines privados del mismo. Se accede a ellos desde el colegio de Loyola y desde el centro de espiritualidad. Estos jardines son de uso privado para la comunidad y usuarios de los centros de espiritualidad y formación el complejo, así como de los hospedados en el mismo.

En 1948 se adquirieron los terrenos pertenecientes a los caseríos Muniategui y Aldakaitz que estaba junto a las instalaciones del santuario. Entonces se construyó un gran parque de 25 Ha (antes tenía solamente 5).

Lur-sail horien erosketa-prozesua da, hain zuzen, datozen orrialdeetako aztergaia. Eskura heldu zaizkigun agiriek eta ahotsek esku-aldatze hori iradokitakoa baino trumultsuagoa izan zela adierazten digute. Salerosketaren zenbait agiriez gain, hiru dira jaso ditugun bertsioak: lehena Iñaki Bereziartuarena, bigarrena Gabriel Intxaurrendietarena, biak jesulagunak, biak idatziz, 1982an eta 1989an hurrenez hurren; hirugarrena inguruko baserritarren ondorengoena, agiriz eta ahozko oroimenez osatua. Azken horrek, funtsean, bat egiten du Bereziartuaren txostenarekin. Bereziartuak ondo ezagutzen zuen kontua, Katalangoako semea zelako. Katalangoa da, hain zuzen, Kiruri jatetxearen aldetik zubia pasatu ondoren Loiolara sartukeran dagoen etxea eta bere aldamenetik ibaian gora eginez gero dago Aldakaitz, egungo parkinaren hegoaldeko ertzean, eta gorago zegoen Munategi baserri ederra, egungo aterpetxearen inguruan. Ohikoa zen garai hartan Loiolako baserri askotako semeek

---

<sup>37</sup> *Oficina de Prensa de Euzkadik*, 1955eko azaroaren 11ko eta 1953ko urriaren 2ko buletinak.

Lagundiaren bidea hartzea<sup>38</sup> eta horren ondorioz, interes askorekin jarraitu zuten auzia. Intxaurrandieta izan zen erosketen kudeaketaren arduraduna eta bere memoriak idazten ari zela Bereziartuaren idatziaren berri izan zuen eta han azaltzen ziren salaketei aurre egiten saiatu zen. Berak egindako kudeaketa-lan guztiak bere nagusien oniritzi eta txaloekin egin zituela diosku behin eta berriz. Lagundiaren esanekoa izatea zen bere hoben bakarra.

Irakurketa bikoitza egin daiteke Bereziartua eta Intxaurrandietaren arteko ika-mikari buruz. Alde batetik, Loiolako auzira mugatu gintezke, eta horrela egingo dugu nagusiki. Posible da, halaber, jesulagunen arteko tentsioen lekuko modura azaltzea. Iñaki Bereziartua, 1935ean jaioa, 1961ean bidali zuten Indiara eta bertan lan egiten du misiolari, baztertuen arteko baztertuenekin, Indiako jatorrizko biztanleekin, adibasiak. Vatikanoko II.aren garaian eta aita Arruperen gidaritzapean Lagundiak bizi izan zuen eraldaketaren adibide ezin nabarmenagoa dugu<sup>39</sup>.

Gabriel Intxaurrandieta Lizarazu jesulaguna Lezon jaio zen 1910ean eta 1927an heldu zen Loiolara jesulaguna izateko. Errepublikara garaian, Manerffera (Belgikara) alde egin zuen eta bertan ikasteaz gain, irakasle ere aritu zen. Tartean euskarazko klaseak eman zituen. 1938an, Francoren armadak deitu egin zuen soldaduska egiteko eta, zalantza askoren ondoren, familia abertzalekoa izaki, Espainiara itzuli zen Lagundiaren buruzagien agindua betetzeko. Gerra bukatu ostean, ikasketak amaitu zituen eta 1944an azken botoak egin zituen. Deustun hiru urte irakasle egin ondoren, 1948ko uztailan itzuli zen Loiolara. Ez zen nolana hiko Intxaurrandietaren gaitasuna eta ardura, 38 urterekin Loiolako behin-behineko arduradun izendatu zutelako, baita junioradoko 124 ikasleen zuzendari espirituala ere<sup>40</sup>. Aita Intxaurrandietak, antza, maitasun berezia zion santuari eta santutegiari. Horren lekuko dugu Lagundiaren burua izan zen aita Pedro Arrupek Intxaurrandietari zuzendutako eskutitzean jarritakoa:

No recuerdo las veces que salimos juntos de paseo por la huerta, o por el camino de la “Salve” pasando por Eguibar, o por el camino que sube junto al caserío del H. Gárate...¿Quién iba a prever entonces la relación que iban a tener esas casas y lugares con aquel novicio que

<sup>38</sup> Errekarteko Garate hiru anaiak (Frantzisko dohatsua, Inaxio Joxe eta Domingo Andres) XIX. mendean eta Benito Azkune XX.ean; Katalangoako Julian eta Iñaki Bereziartua lehengusuak eta Munategiko Simon Odriozola, besteak beste.

<sup>39</sup> Berak zuzentzen duen fundazioaren helbidea honako hau da: <http://www.berechforindia.org/> [2016-03-03].

<sup>40</sup> 1950ean Loiola utzi eta ardura ugari izan zituen Lagundiaren ikastetxe eta gune desberdinetan, Probintziaren barruan beti ere. 1956 eta 1958 bitartean berriro izan zen Loiolako ministroa eta bertara itzuli zen 1963an, bertako bokazioak sustatzeko eta kudeaketa-lanak zuzentzeko eta bertan hil zen 1990ean. Intxaurrandietari buruzko datuak: Orella Unzue, J.L. “Introducción biográfica de Gabriel Inchaurrandieta, S.I.” in Inchaurrandieta, 2009: 59-64. Hainbat lan idatzi zituen, baina bi bakarrik argitaratu ziren: 1983an, Garate anaiari buruzkoa eta, hil ondoren, Gerra Zibilaren garaian frankistek Ameriketara erbesteratu zuten José Martín Aguirre-Ceciaga jesulagun bizkaitarrari buruzkoa.

demostraba una especial devoción a San Ignacio de Loyola y a todo lo que de alguna manera estuviera relacionado con el santo?<sup>41</sup>.

Maitasun hori ere nabaria da Garate Anai Dohatsuari eskaini zion liburuan (1983). Inguru geografikoaren eta historikoaren ezagutza sakona erakutsi zuen bertan eta santutegiarekin liluratuta zegoela azaldu zuen:

Giza-erliki auzentzat erliki-tegi dotore ta ikusgarria, Urola ibaiko ibar eder au. Aozabal, xoxoturik egon oi dira, erromes edo turista gisa, ia mundo guztitik onara datozten jende oriek. Zer ez lirateke arrituko, ibar miragarri oei, Loiola aundia biotz duela, inguruko mendi-bizkar eta gaindegietatik begira balezate....

Enpatia gutxi ikusten da haren lanean bertako baserritarrekin, behartsuekin bereziki. Garate anaiaren familiak, maizterrak izaki, Errekarte etxea utzi eta Iturbide baserrira jo zuten, bi etxeetako nagusia zen Rafael Aztiriak azken horretako familia kanporatu baitzuen, ezin zutelako maizter-saria ordaindu. Intxaurrandietaren iruzkin bakarra hau izan zen, «Nik ez dakit zer gertatzen zen etxe artan» (1983: 20). Bere abertzaletasuna gorabehera, Intxaurrandieta, Loiolako heziketa tradizionalista eta kontserbadorearen semea zen, hurbilago zegoen baserri jabeengandik maizterrengandik baino. Bera, hala ere, kontrakoa azaltzen saiatu zen, erosketa-prozesuan, maizterren alde jokatu zuela, alegia eta, oro har, inguruko baserritarrak lagundu zituela, bai baserriaren jabe egin zitezten (hainbat etxeren izenak aipatzen ditu bere idatzian), bai eta soldaduskatik libratzeko bitartekari lana eginez ere<sup>42</sup>. Ez zitzaion ahaztu, halaber, Bereziartuaren misiora bideratutako diruak aipatzea. Deigarria da, hain zuzen, pobrezia botoa eginda zuen erlijio-gizon batek zenbat diru erabili zuen kontu desberdinetan. Edozein modutan, adierazgarria da ikustea nola amaitzen duen lan horren sarrera:

Querido lector, si estás de acuerdo conmigo en las cosas que escribo, me haces un gran favor; y si no estás de acuerdo, qué le vamos a hacer! –Dios sobre todo-, y puede ser que tengas razón.

---

<sup>41</sup> *La Bella*, 2007: 89. Liburu horretan ez da aipatzen eskutitzaren data.

<sup>42</sup> Badakigu horretarako kintoei edo euren familiei dirua eskatu ziela. Ez dakigu, ordea, zer egiten zuen diru horrekin. Zati bat, gutxienez, militarren baten eskuetara joaten zela pentsa genezake.



Loiolako ingurua 1900. urtean. Santutegiaren ezkerrera ikus daiteke Errekarte baserria, are ezkerreago Munategi, eskuin aldera atzean Katalangoa. Loiolako albuma

1982. urtean Iñaki Bereziartuak Indiatik, misiolari zegoen tokitik, orduko aita probintzialari, Juan Plazaola historialari eta irakasleari, eskutitz luze bat (12 orrialde) bidali zion<sup>43</sup>, non parekatu egin zituen Indiako adibasiek euren lurak nola galdu zituzten eta Loiolako baserritarrei gertatutakoa. Aita Egaña probintzialak, antza, bat egin zuen ideia horrekin, zera jakin nahi izan baitzuen, «todas las salsas que algunos jesuitas han hecho allí». Kontzeptu bera, «algunos jesuitas», idatzi zuen Bereziartuak bere txostenean, nahiz eta aurrerago, «nosotros» ere sarri erabili. Garbi dago «algunos» hitzaren erabilerarekin Lagundiari ardura kendu eta norbanakoen bizkar jarri nahi zutela. Salaketa, hala ere, zehatza zen:

en el valle de Loyola donde nosotros mismos protagonizamos el escándalo, obligando a varias familias de labradores a abandonar sus caseríos y terrenos a la fuerza, contra su voluntad.

<sup>43</sup> Honela amaitzen zen eskutitza: «N.B. Quería advertirle que nadie me ha sugerido o animado a escribirle esta carta, alguno sí intentó a disuadirme.

Soy el único responsable de esta carta y lo escribo porque creo es para mí un deber de conciencia.

Envío copia de la misma a todos los que de alguna manera nombro en la carta excluyendo los seglares».

Intxaurrandietak, hala ere, zera adierazi zion Plazaolari, 1977an Bereziartuak Loiolako basilikan sermoi batean salatu zituela gero eskutitzean jarri zituenak.

Es verdad que esas familias eran tan solo inquilinos y arrendatarios de esos caseríos y terrenos, pero inquilinos desde hace muchas decadas de años y por consiguiente con ciertos derechos innegables para seguir disfrutando en el futuro de ese inquilinato o para la adquisición de dichos caseríos y terrenos por la vía de la compra. (2. or.)

Are gehiago,

De hecho, y es el comentario del P. Ormeche s.j., profesor de Etica durante aquellos acontecimientos, los jesuitas no hubieramos podido adueñarnos de aquellos terrenos, Munategui, etc en otras circunstancias políticas. 2. or)

Beste era batera esanda, frankismoak emandako babesa izan omen zen jesulagunen aterpea baserriak eta lurak eskuratzeko. Gertatutakoa ez zen Loiolako santutegiaren “berezko” zabalkundea, mugarik gabeko handinahikeriaren ondorioa baizik, jesuita gutxi batzuen, «por no decir de un jesuita», amarruen ondorioa.

Intxaurrandietak ukatu egin zituen salaketak: baserriar gutxi batzuek baino ez zutela bat egiten haiekin azaldu zuen, eta horietako batzuk, Munategiko eta Katalangoako maizterrak esate baterako, apustu zaleak zirela, aurrenekoa, gainera, lanaren ez oso laguna. Jesulagunek eta auzian parte hartu zuten legegizonek ondo ezagutzen zuten garaiko legedia eta bazekiten zer zen zuzentasunez jokatzea.

Bereziartuak Muniategiri buruzko informazioa eman zion probintzialari, baina ohardun zen antzeko beste kasu batzuk ere gertatu zirela.

la gente comenta y más de lo que creemos nosotros de nuestras actuaciones en el mismo valle, del caso Munategui, de los despidos de las que trabajaron por años en el costurero, de la falta de sus seguros<sup>44</sup>, del caso Mandiolatza, del testamento del caso Lapaida en Azpeitia, del caso de la familia de Urbano, también de Azpeitia, etc, etc.

Ez dugu informazio askorik lortu hor aipatzen diren hainbat kasuren inguruan, esate baterako Loiolako Mandiolatza baserrian («increible lo que ocurrió» diosku Bereziartuak<sup>45</sup>) edo Azpeitiko Lapaida (Lapeira) eta Urbano kasuetan zer gertatu zen zehaztu ahal izateko, baina, antza, Intxaurrandietak hariak mugitu zituen hainbat ondasun santutegiaren esku jartzeko. Datu gehiago ditugu basilikaren inguruan gertatutakoari buruz.

Arestian azaldu dugunez, hainbeste ugaritu ziren bokazioak XX. mende hasieran, 1948ko azaroan santutegiaren ondoan, 30 metrotara, eraikin berria ireki zutela, jesulagun ikasleak hartzeko, egungo Espiritualitate-etxea, hain zuzen. Intxaurrandietak, dakigularik, ez zuen esku hartzerik izan bertan. Ikasleen etxea, “juniorado” jesuiten lexikoan, zubi moduko

<sup>44</sup> Santutegiko agiritegian 1940eko hiru agiri daude, Gipuzkoako Derrigorrezko Gizarte Aseguruen ikuskariarenak, Loiolan lan egiten zuten hiru emakumeen datuekin, ikastetxeak ordaindu gabeko kuotak eta atzerapenen interesak ordain zitzala aginduz. AHL 1-5-17.

<sup>45</sup> Intxaurrandietaren arabera, Mandiolatzako bi ahizpek, lekaimeak biak ere, Loiolako erretoari zera eskatu omen zioten, baserrian zeuden bi anaiei, burua galdutakoak, laguntzeko. Intxaurrandietak, erretoarearen borondatea jarraituz, Donostiako ospitale psikiatrikoan sartu zituen. Hainbat baserriar, Katalangoa eta Munategiko maizterrak buru, santutegira joan ziren protesta egitera. Haien ustez, Intxaurrandietaren esku hartzearen benetako arrazoia baserriarekin geratzea izan zen.

batekin lotu zen santutegiarekin eta hainbat lan eskatu zituen. Alde batetik, Urolako trenbidea bertatik pasatzen zenez, tunel artifiziala eraiki zen trenbidea ezkutatzeko eta bere gainean etxea eraiki ahal izateko. Tunela egiteko baimena aita Juan Migel Artabe Jesusen Lagundiaren Gaztelako Probintziaren Ordezkarri Administratiboak eskatu zuen 1945eko abuztuaren 6an, baina 1948ko maiatzean baimena Loiolako Obren Elkargoaren eskuetara pasatu zen. Era horretara, elkargoak 2.349,20 metro karratuko lursaila eskuratu zuen<sup>46</sup>. Etxea eraikitzeko, 1943an, Lagundiak aldundiari diru-laguntza eskatu zion, ez juniorado berria altxatzeko, gogojardunen etxea zabaltzeko baino. Izan ere,

La misma obra de Ejercicios a obreros, con tanto fruto iniciada para los centros fabriles de Mondragón, Vergara, Legazpia y Tolosa, pide una intensificación mayor, y debe extenderse sin demora a zonas aún más necesitadas, como las de Pasajes y Eibar. Es de suma urgencia esta regeneración moral de focos que se presentan amenazadores en nuestro pueblo

100.000 pezeta jaso zituzten. Garai nahasiak ziren eta frankismoa bete-betean egon arren, lau ahaldunek (Sáenz Alonsok, Llanosek, Puentek eta Telleriak) aurkako botoa eman zuten beste behar batzuk zeudela lurraldean eta jesuitek bazituztela behar beste baliabide esanda. Are gehiago, garaian falangisten eta karlisten artean gertatzen ari ziren lehien ondorioz, beharbada, Saenz Alonsok horrela arrazoitu zuen ezezko botoa:

no es este el momento político adecuado para solicitar esa subvención. Estamos en lo que se llama momentos cruciales (...) nadie tiene la seguridad sobre lo que puede acontecer en un futuro muy próximo (...) conviene esperar que se normalice la actual situación internacional que puede tener repercusiones en nuestra Patria<sup>47</sup>.

1940. urteaz geroztik José Ángel Lizasoain izan zen elkargoaren burua; Gipuzkoako Aldundiko presidentea izandakoa 1929 eta 1930 bitartean, Primo de Riveraren garaian, eta Gipuzkoako Ekintza Katolikoaren presidentea errepublikako urteetan. Matxinatuekin lerratu arren, paper garrantzitsua izan zuen apaiz abertzale edo euskaltzaleen aurkako fusilatzeak amai zitezten. Elkargoan, berarekin batera zeuden, besteak beste, Julian Elorza, aldundiko presidente ohia hau ere eta euskaltzale ezaguna, Ignazio Perez Arregi ahaldun ohia, Agustin Brunet (aldundiko burua une hartan), Jose Egaña eta Jose Etxeberria (Patrizio Etxeberria Legazpiko enpresariaren semea). Hauen ondoren Jose Maria Guibert jesulagunaren aitak (Jesus Guibert) eta haren familiak hartu zuten elkargoaren buruzagitza.

Etxe berria eraikitzeko lur sail handia behar zen. Jabea, inguruko sail askotakoa bezala, Granada de Egako dukea<sup>48</sup> zen eta Katalangoa baserria eta Aldakaitz baserria ziren haren

<sup>46</sup> Mikrofilmazio eta Digitalizazi Laborategia. Historia Garaikidea Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa.

<sup>47</sup> GAO, JD IT 1508/2863.

<sup>48</sup> Ez dakigu zein arrazoiengatik Intxaurrendietak Villahermosako dukea aipatzen duen. Granadako dukea, aldi berean, Villahermosako dukea ere bazen. Azken titulu hori bestea baino

erabiltzaileak. Jesuitek Bereziartuaren familiari lurra uzteko eskatu zioten eta, tratuan, Aldakaitz baserriaren ondoko bi sail eskaini omen zizkieten trukean. Agiriak sinatu ondoren, ordea, Katalangoko familiak ez zuen lur berririk jaso. 1970eko hamarkadan, jesuitek Katalangoa baserria bera erostea proposatu zioten Granada de Egako dukeari, hura baitzen baserriaren jabea, Bereziartua familiarekin oraingo honetan gauzak ondo egingo zirela hitza emanaz. Iñaki Bereziartuak konpentsazio handi bat eskatu zuen eta garaiak desberdinak zirenez, frankismoaren amaiera, jesuitek atzera egin zuten. Azkenean, dukearekin tratua egin eta Bereziartua familiak baserria eskuratu zuen, lur zati txiki batekin. Honela alderatu zuen jesulagunak dukearen jarrera eta jesuitena:

si los jesuitas hubieran tratado a los inquilinos de Munategui con la misma deferencia, honestidad y respeto con que la familia del Sr. Duque trató a los inquilinos de Katalangua, hoy Munategi pertenecería seguramente a la familia de I. Odriozola.

Garate Anaiaren jaiotetxea ere, Errekarte baserria, eskuratu zuen Lagundiak. Hamar metro eskas daude Errekarte baserriaren hormatik Gogarte-etxearen leihoetaraino. Kontxi Aztiria, elkargoko kide izandako Roke Aztiriaren alaba, zen haren jabea, eta, Intxaurrendietaren esanetan, Aztiria andreak etxea dohaintzan eman zien jesulagunei 1949. urtean. Baina hori ez zen egia osoa. Alde batetik, etxeari zegokion dohaintza, baina inguruko lurak saldu edo permutatu egin zituen Aztiria andreak. Bestetik, Errekarte baserrian, Garate Anaiaren familiak alde egin ondoren, Azkune familia bizi zen. Aita, Jose Mari, santutegiko baratzean aritu zen lanean hainbat urtez eta semeetako bat, Benito, jesulaguna da. Azken horrek «le podría informar todo lo que se hizo sufrir y el modo como se hizo sufrir a su familia durante las negociaciones, por la cesión, también forzosa, del caserío Recarte». Azkune familiak Errekartetik alde egin behar izan zuen eta etxetxo bat eraiki zion Lagundiak Igara baserriaren ondoan. Egindako gehiegikeriaz jabeturik, handik urte batzuetara, 1964an, jesuitek etxe berria egin zioten Azkune familiari.

Ordurako Intxaurrendietaren begiak jesulagunen aspaldiko helbururantz begira ari ziren, santutegiaren atzeko aldera, Munategi eta Aldakaitz baserrien ingurura. Dakigunaren arabera, Aldakaitzen ez zen istilurik gertatu; bertan bi ahizpa bizi ziren eta han jarraitu zuten etxea Lagundiaren eskura pasa ondoren. Munategin, aldiz, zalaparta gehiago egon zen. Bereziartuaren esanetan, han gertatutako auzia era honetan laburbil zitekeen: jesuitek “moralki” baserritarra etxea eta lurak uztera eta saltzera behartu zuten, «de ahí los descontentos, las críticas incesantes y las acusaciones de la gente del valle de Loyola en contra

---

zaharragoa zen, baina Urolako jendearentzako lotura Granada de Egaren dukearekin egiten zen. Dukearen familia Espainiako Handikien multzoko partaide zen eta lur asko zituen penintsula osoan barreiatuta. Hala ere, urte horietan bere ondasunen zati garrantzitsu batsaldu zuen. 1932. urtean 47.203 hektarearen jabe zen; 1954an, aldiz, 26.501 baino ez zituen (Artola, 2013 :144).

de algunos jesuitas. (...) abusamos de nuestro poder y de nuestra fuerza moral, y obligamos a esa familia, amedrentando con amenazas, a firmar un documento contra su voluntad». Intxaurrandietak, ordea, maizterrak kompentrazio “oparoa” jaso zuela azpimarratu zuen.



1915. urtea Odriozola familia Munategi baserri aurrean. Familiaren argazkia.

Ignazio Odriozola eta Sabina Olaizola emaztea bizi ziren Munategin. Zortzi seme-alaba zituzten. XVI. mendetik aurrera omen ziren Odriozolatarrak Munategiko maizterrak eta nahiz eta Ignazio baserria erosten saiatu urte batzuk lehenago, Granada de Ega dukeak ez zuen onartu horrelakorik. Baserritik metro batzuetara Odriozola familiak errota bat zuen, haien jabetzakoa.

Intxaurrandietak agiri bat entregatu zion 1948ko urriaren 8an Ignazio Odriozolari jesuiten eskaerarekin. Guk kopia bat ikusteko aukera izan dugu, baina ez dakigu testu osoa jasotzen duen:

Odriozola'tar Ignacio Jaunari

Pena dut, alde batetik, zuri disgustua eman bearra; bañan bexte aldetik poza ere eman nai dizugu.

Zure familiyak pena artuko ba-du jesuita izango dan zure semea poztu gingo da, eta asko gañera, egunen batian.

Azpalditik, Loyola Loyola danetik jesuita guztiyak Munategiko baserrira begiratu-ta “orrek Loyola izan bear luke”, esan oi dute.

Beti ala izan ba-da, gaur, batez ere gure etxia ainbezte aundituta gero, lur gehiago bear ditugu. Zuek etxian 14 bat persona zerate; gu 300 gera, eta gure terrenuak ezdira zuk dauzkazun bañon aundiaguak.



Ez zaituegu etxetik kanpora utzi nai. Ori gure kristau izatia eta jesuita izatia ukatzia litzake.- Fabore baten eske gabiltz, eta ordañez, guk ere fabore bat egin nai dizugu.

Duke Jaunarekin dana arreglatuta daukagu.- orain zurekin konpondu bearra dago.

Munategui ustia eskatzen dizugu, baño ordaindu-ta, karidadeak erakusten duen bezela ordaindu-ta. Ikusi ezazu, dakiyenari –nai izan ezkeroz-kontsulta ezaiozu.- ¿Zer da, arrazoa beti jauna dala, zer da edo zer gauzekin ordaindu genezaizuke egiten dizugun kaltia?

Pakia nai dugu. Naiz eta momentuan, ainbezte maite duzuten baserriya utzi-ta, dizguztua artu zuek; ba-liteke, eta dudik ez dut egiten aik (sic), obeto ere gelditu ziñeztekela.

Gure aldetik gu ere zakrifiziyua egitera gertu-ta gaude, baño, beti arrazoizko zakrifiyua izan dedilla.

Begiratu ezazu, ba-da

Loiolako ikastetxeak lur gehiago behar zuen eta Munategi zen konponbide egokiena. Zegoeneko Granadako dukearekin hitz eginda ziren, bera baitzen baserriaren jabea, eta eskaintza egin zioten: dukearenak ziren Aldakaitz eta Munategi baserriak jesuitentzat eta jesuitena zen Urrestillako Zabale baserria dukearentzat. Dukea, irailetik, permuta egiteko prest zegoen, baldin eta jesuitek maizterekin, Odriozola familiarekin kasu honetan, akordio batera heltzen baziren. Intxaurrandietaren arabera, hogeita hamar urte geroago, “zentzuzko” akordioa aipatu zuen Dukeak. Ez dakigu eskutitz horretan edo Dukeak bidalitakoren batean zehazten ote zen, legeek eskatzen zuten moduan, maizterrek ere baserria erosteko eskubidea zuela, *retracto* edo atzeratze-eskubidea erabilita<sup>49</sup>. Berehala hasi ziren arazoak eta bertsio kontrajarriak. Gu batzuk eta besteak uztartzen saiatu gara, eta dauden kontraesanak azpimarratuko ditugu.

Intxaurrandieta harro agertzen zaigu bere memorietan (1983): bere esanetan, Odriozola familiari laguntzeko asmoa zegoelako, garaiko legeek ia-ia babesik gabe uzten zituztelako maizterrak. Berehala ikusiko dugunez, hori ez zen guztiz egia, ez behintzat 1948an<sup>50</sup>. Jesulaguna ez zen tratua onurekin hain seguru egongo, Odriozolari esan omen zioenean tratua isilean gordetzeko eta «que si hacía algo público, no publicara solo el daño que se podía seguir, sino también nuestra disposición de sacrificarnos por favorecerle». Dukearekin akordioa itxita zegoela eta baserria uztearen truke diru kopuru bat proposatzeko eskatu zion Odriozolari.

Intxaurrandietaren esanetan, hainbat eskaintza egin zizkion Odriozolari, beste baserri batzuek erosteko aukera barne, baina azken honek uko egin zien guztiei. Odriozolak ukatu egin

<sup>49</sup> Zabale baserriaren kasuan, Lizasoainek eskutitz bat bidali zien bertako bi maizterrei jakinarazteko Elkargoak etxea saltzeko asmoa zuela, 70.777,75 pezetatan, eta nahi izanez gero, eros zezaketela. Maizterrek uko egin zioten aukera horri. AHL 1-5-17.

<sup>50</sup> 1920ko Bugallal ministroaren dekretuak babestu egiten zituen maizterrak, beti ere hirietan bizi baldin baziren. Frankismoak berretsi egin zuen babes hori hainbat legetan, baina 1948an ez zuten eraginik nekazaritza-eremuetan. Ezaguna da, bestetik, Errepublika garaiko urteetan zenbat zalaparta sortu ziren nekazaritza erreformaren inguruan eta zenbat maizter kanporatu zituzten jabeek inolako ordainik eman gabe. Gerra ostean jabe ugari gauza bera egin zuten. Are gehiago, 1940ko ekaineko Nekazari Alokairuaren Legeak baserriarren kaleratzeak erraztu egin zituen (Sanz Hoya, 2008: 137), baina hori ez zen 1948ko egoera, tartean hainbat lege eta arau onartu zirelako.

omen zuen hainbeste eskaintza izan zuenik eta garbi adierazi zion Intxaurrendietari ez zuela Loiolatik alde egin nahi. Jarrera hori ikusirik, jesulagunak nahi zuen beste diru eskatzeko esan zion. Aukera hori izan zen Odriozolaren galbidea, idatziz eman baitzion handik egun batzuetara bere eskaera. Intxaurrendietak zehazten digu baserriarraren proposamena: Urola ibaiaren ezker aldeko ibarreko lursail bat, bertan etxe berria altxatzea, zubi berri bat eraikitzea errotara joan ahal izateko, bederatzi hektarea (ez dago oso garbi Zabale baserriko lurretan edo Munategin bertan) eta bi milioi pezeta.

Eskari ikaragarriak eta tokiz kanpokoak egin zituela konturatuta, «El pobre Ignacio Odriozola marchó humillado y avergonzado». Handik egun batzuetara eskutitza itzultzeko eskatu zion Intxaurrendietari. Honek ordurako kopia bat aterata zuen, eta Granada de Egako dukearen eskuetara helarazi zuen. Eskaera horrek aristokrataren haserrea piztu zuen, bere maizterra diru-gose erakusten zuelako, eta permutaren agiriak sinatuko zituela adierazi zion Intxaurrendietari. Horrela egin zuen 1948ko abenduaren erdialdera. Jesuitak ziren Munategiren, Aldakaitzaren eta Katalangoako sail baten jabe berriak; baina lurraren jabe izateak ez zuen esan nahi maizterrak desagertu zirenik.

Intxaurrendietaren testuak erosketaren berri eman ondoren, hau nola legeztatu zen azaltzen zuen. Eredu bitxia iruditu zitzaigun irakurri genuenean, eroslea ez zelako ez Jesusen Lagundia, ezta Loiolako Obren Elkargoa, santutegiko baratzean ziharduten hiru jesulagun baino (Juan Alkorta, Trino Izagirre eta Eustasio Egia anaiak). Intxaurrendietaren esanetan, «Convenía que los firmantes fueran miembros de la Compañía, y, a poder ser, los mismos que habían de explotar la finca, flexibles siempre a los cambios de personalidad jurídica, que en cada caso aconsejaren las circunstancias. (...) a las órdenes de sus Superiores, sirvieran de lazo de unión para los cambios a que hubiere lugar, y siempre bajo manos seguras<sup>51</sup>». Loiolako Lanen Elkargoak bere aldetik ez zuen aitortu nori saldu zioten benetan Zabale baserria. Aktaren arabera, «se ha vendido la finca de Zabale a tres labradores que puedan explotarla por sí mismos»<sup>52</sup>. Hau irakurri genuenean, Errepublikara garaiko gorabeherak etorri zitzaizkigun burura, Lagundiaren izenean zeuden ondasunak galtzeko zorian egon zirelako. Baina azalpen mugatua zen; kezka hori edukiz gero, nahikoa zelako Elkargoaren izenean jartzea, 1917an hasieran egin zen moduan Basilikaren aurreko lursailarekin. Are gehiago, Elkargoa zen Zabale baserriaren legezko jabea. Notario-eskrituran Alkortak, Izagirrek eta Egiak hitza eman zuten

---

<sup>51</sup>Esanguratsua da, halaber, ikustea, Lagundiaren arduradunen jokatzeko era. 1948ko abenduaren 18an hiru anaia jesulagunek ahalmena luzatu zieten Lagundiko hiru aitari, Intxaurrendietari tarteko, euren izenean aritu zitezien. Abenduaren 22an, Elkargoak Zabale saldu zien hiru anaiei eta hauek Munategirekin trukatu zuten.

<sup>52</sup>Libros de Actas de la Compañía de Obras de Loyola. 6-6-1949. AHL

elkarrekin eta hamar urtez landuko zutela sail berria, ez zutela bakoitzaren zatia besteari emango eta hiruretakoren bat hiltzen baldin bazen, beste bien eskura pasatuko zela haren zatia.

Gerora jakin dugu —baina ez Intxaurrendietaren eskutik—, gure ustez, zergatik komeni zen gauzak horrela egitea eta zein izan zen horrela jokatzeko benetako arrazoia. 1942ko uztailaren 23an Nekazari Alokairuaren Lege berri bat onartu zen Espainian, 1940koan oinarrituta, eta bertan maizterren aldeko hainbat neurri ezarri ziren (Pan-Montojo, 2008). Ordura arte, kontratu gehienek urtebeteko iraunaldia izaten zuten, San Martin egunetik San Martin egunera gure inguruan. Lege berriak, besteak beste, kontratuaren iraupena, finka txikien kasuan, gutxienez hiru urtekoa izan behar zuela finkatu zuen eta bere 6. artikulua arabera, maizterrak eskubidea zuen hitzarmena luzatzeko hiru urteko epetan lau aldiz gehienez, hots 12 urtez. 1948ko maiatzeko lege berri batek maiztertza-hitzarmenak bere horretan mantentzea erabaki zuen, gutxienez 1954ko irailaren 30era arte<sup>53</sup>. Ignazio Odriozolak, Granada de Egarekin kontratua era egokian eginda bazuen, errenta eta zergak ordainduz gero eta lurra landuz gero<sup>54</sup>, eskubidea izan zezakeen Munategin jarraitzeko urte batzuetan; baina egoera hori ez zen Intxaurrendietaren gogokoa.

Legeak lur-jabeei euren sailak berreskuratzeko aukera eskaintzen zien (Ortega López, 2012: 15-16), maizterrak kanporatuta, lurak **zuzenean eta pertsonalki** (geuk azpimarratuta) lantzen bazituzten sei urtez, beti ere maizterrekin zuten hitzarmena amaitu ondoren. Salbuespen bakarra zegoen arau horri eta maizterren aldekoa zen:

la transmisión por cualquier título de una finca rústica sobre la que, al tiempo de verificarse aquélla, exista vigente un contrato de arrendamiento cuya renta anual no exceda de la equivalente a 40 quintales métricos de trigo, y siempre que el arrendatario cultive o explote de forma directa y personal, no será causa de rescisión del contrato<sup>55</sup>.

Gure lurraldean, hektarea bakoitzak 27,2 anega-gari ematen zituen hektareako urte on batean, hots, 324 kilo inguru<sup>56</sup>. Munategik 11 hektarea inguru zituen, baina zati handi bat menditsua zen eta larre gisa erabiltzen zen. Sail osoa soro modura erabilita ere, 7 kintal inguru jasoko zituzkeen Odriozola familiak. Oso urruti, beraz, legeak esandako 40 kintaletatik.

<sup>53</sup> Servan, 1956: 119-120.

Hurrengo urteetako aginduek behin eta berriz luzatu zuten epe hori, ia-ia gaur egunera arte. 1980ko legeak, adibidez, 21 urtera luzatu zuen hitzarmenaren iraupen-aukera, berritzeak kontuan hartuta.

<sup>54</sup> Ez dakigu azken baldintza hori izan ote zen arrazoia Intxaurrendietak idazteko Odriozolak ez zuela ingurua behar zen moduan landuta.

<sup>55</sup> Servan, 1956 147-149. Hurrengo urteetan hainbat lege-arau egon ziren baldintza hori zuzen bete zedin bermatzeko.

<sup>56</sup> Berriochoa, 2013: 144.

Gariaren salneurri ofiziala 1947. urtean 1,923 pezeta ziren, hots, 623 pezeta kintaleko<sup>57</sup>. Ez dakigu juxtu zein zen orduko Munategiko errenta, baina garai hartako Gipuzkoako baserri on batena 1.000 pezeta urteko zen gutxi gorabehera. Legeak 26.000 pezetako errentan jartzen zuen muga maizterra bota ahal izateko.

Munategiko lurak bi urte eskas egon ziren hiru jesulagun anaien esku. 1951ko otsailaren 5ean Elkargoari saldu baitzizkioten Munategi eta Aldakaitz, esandako dirua ezin zutela ordaindu aitzakiatzat jarrita. Ez dugu uste Jose Angel Lizasoain Loiolako zelaietan lanean arituko zenik eskuarea eta sega eskuetan. Jesuitek, beraz, ez zuten legea behar bezala errespetatu. Are gehiago, agerian dagoenez, ez zuten eskubiderik maizterra kanporatzeko.

Ez dakigu Intxaurrandieta aldaketa horietaz ohardun ote zen, baina bere lanetan salerosketa kontuetan aditu moduan azaltzen zaigu, eta berak ez baldin bazituen ezagutzen, notarioek eta legegizonek ezagutu behar zituzten. Itxura guztien arabera, Munategi hiru jesuita anaien izenean jarrita, eragotzi egin nahi zuten Odriozola familia bertan geratzea.

Azken eskaintza egin zioten Ignazio Odriozolari: 300.000 pezeta balio zituen Azkoitiko beste baserri baten jabe bilakatzea, errota eta guzti zuen Azkarate mendatearen bidean zegoen Mi(e)koleta Txikirena. Odriozolak Loiolan zuen errota jesuiten eskuetara pasatuko zen. Eskaintza, Intxaurrandietaren esanetan, «no fue indemnización, sino compensación, limosna, y no en fuerza del derecho, sino de caridad cristiana»<sup>58</sup>. Egia da legeak ez zuela aurreikusten konpentsaziorik maizterrarentzat, nahiz eta ohitura izan maizterrak egindako hobekuntzen truke ordainketak egitea (Garrido, 2012: 155), baina Intxaurrandietak legearen beste arau asko alde batera utzi zituen.

Odriozolak eskaintza onartuz gero, 1949ko azaroaren 30ean utzi behar zituen lurak eta 1950eko urtarrilaren 31n etxea. Ez zen zehazten zer gertatuko zen eskaintzari uko eginez gero. Gauzak horrela, Odriozolak baserri horri uko egin zion, baina 250.000 pezeta onartu zituen. Diru kopuruan bat egiten dute bi aldeek. Intxaurrandietaren arabera, 50.000 pezeta gutxitu zitzaion kopurua Odriozolak Munategiko errotak bere esku jarraitzea nahi zuelako<sup>59</sup>. Odriozolaren arabera, Loiolako Elkargoari diru gehiegi iruditu zitzaiolako 300.000 pezetak. Bera saiatu omen zen elkargoko kideekin hitz egiten, baina ez zioten utzi. Are gehiago, ez zuen lortu jakitea nortzuk osatzen zuten elkargoaren zuzendaritza. Diruaren eskaintza nahikoa ez, eta Intxaurrandietak mehatxu egin omen zion indarrez aterako zutela etxetik eta legeak

---

<sup>57</sup> López de Sebastián, 1985:21.

<sup>58</sup> Intxaurrandietak behin eta berriz leporatu zion Bereziartuari ez zuela ezer esan garai hartan edo geroago gertatu ziren beste kanporaketa batzuen inguruan.


<sup>59</sup> Handik gutxira, Odriozolak errota jesulagunei saldu zien eta berriro arazoak sortu ziren. Odriozolak 75.000 pezeta eskatu zituen eta Intxaurrandietak onartu, baina 65.000 pezeta dirutan eman ondoren, falta zena errotan egindako lanarekin ordainduko omen zion. Lanik ez zuten egin, ordea, eta dirua jaso gabe geratu omen zen Odriozola.

agindutako sari apurra baino ez ziotela emango. Hainbat ahalegin egin zituen Odriozolak, baina Donostiako legegizon batek esan zionez, arrazoia bere alde eduki arren baserrian jarraitzeko, egoera politikoak eta jesulagunen botereak eta eragin-gaitasunak ezinezkoa egingo zuketzen jabe berrien aurka egitea. Hainbat jesulagunek ere —Bereziartuak aita Goikoetxea eta aita Oregi aipatzen ditu— gogor kritikatu zuten Intxaurrandietaren jarrera, baina Loiolako nagusiek babestu egin zuten. Azkenean Ignazio Odriozolak amore eman eta sinatu egin zuen.

Familiak ibaiaren eta errepede nagusiaren beste aldean zegoen Villa Ramona etxea erosi zuen, eta bertan jarri ziren bizitzen. Azkoititik Azpeitira doan errepidetik pasatuz gero, bertan ikus daiteke Munategi etxea, baserriaren izena jarri baitzioten bizitoki berriari. Lau etxebizitza edukitzeaz gain, tailer bat ere ireki zuten bertan. Etxe horren erosketak ez zuen zalapartarik sortu, baina Intxaurrandietak erabili zuen erakusteko Odriozolak negozio ona egin zuela etxe berriak baserri zaharrak baino askoz ere gehiago balio zuelako 1989an. Are gehiago, bere esanetan harreman ona mantendu zuen familiarekin hurrengo urteetan, norbaitek eragindako hoztasuna nabarmendu zuen arte.



1951n beste zenbait lursail txiki erosi edo legezatu zituen Intxaurrandietak, eta era horretan Loiolako atzealdeko lursailek batasun bat osatu zuten.



1979ko katastroa. AHL

Ez ziren hor amaitu Loiolako berreskuratze lanak. 1966. urtean, jesulagunek Egibar baserria erosi zuten. Haren jabeak diru-arazoak zituen eta, berari laguntzeko asmoz, bertan igaro omen zuelako San Ignaziok bere haurtzaroa eta garai batean Lagundiarena izan zelako, jesuitek baserria eskuratzeko prozedura abiatu zuten 1965eko urtarrilean. Lehen ahalegina Gipuzkoako aldundira bideratu zen, baina erakunde horrek ezetz erantzun zuen, une hartan ezinezkoa zitzaiela diru-kopuru hura ordaintzea adieraziz, baina, beharbada, aurrerago eros zezakeela. Bigarren ahalegina Patrizio Etxeberria enpresa gizonaren bitartez gauzatu zen. Ez zen kasualitatea, Maria Luisa Guibert, Loiolako elkargoaren burua zen Jesus Guiberten alaba, haren semearekin ezkondata zegoelako. Intxaurrendieta izan zen, berriro ere, eskatzailearen papera hartu zuena. Egibarko zorra zuen legegizonarekin hitz egin eta atzerapen bat lortu zuen lehenik. Ondoren Legazpira jo zuen, bertan bizi baitzen Etxeberria. Bi aukera eskaini zizkion enpresa gizonari: lehenengoa, baserria zuzenean Etxeberriak erostea eta bigarrena, jesuitei mailegu bat egitea. 83 urte bete berri zuen Etxeberriak uko egin zion lehen aukerari, bere langileek etxe gabetze moduan ikusiko zutelakoan erosketa. Bigarren aukerari ere ezetz esan zion, eta maileguaren orde zehaztasun egin nahi zuela azaldu zion. Ez zuen aukera galdu, dena den, zenbait jesuita eta apaizen lana salatzeke, enpresa gizonen jarduna kritikatu zutelako. Ez zen Etxeberria, antza, Vatikanoko II Kontzilioaren oso aldekoa. Handik bi egunera, 1965eko martxoaren 15ean, Etxeberriak 1.200.000 pezeta eman zion eskura aita Antonio Arana Loiolako buruari. Diru-kopuru hori izan zen, hasieran, Egibar baserriaren salneurria<sup>60</sup>; baina 1.000.000 pezeta baino ez zituzten ordaindu nahi, 1966. urtean, jesuiten zuzendari berriak

<sup>60</sup> Erosketaren inguruko gorabeherak hainbat jesuitak idatzi eta Odriozola familiak gordeta dituen agirietan azaltzen dira.

ziren aita Urruzunok eta Aita Ibirikuk. Izan ere, azken horiek erabilitako teknikoek baserriaren balorazio txikiagoa egin zuten.

Egoerak aita Aranaren eta aita Intxaurrendietaren kezka sortu zuen, hiru norabidetan. Alde batetik, Patrizio Etxeberriaren aurrean iruzurgile moduan azaltzen ziren, baserriaren lehen prezioaren eta benetako salneurriaren artean 200.000 pezetako aldea zegoelako. Bigarrenik, Egibarko nagusiari diru gehiago agindu zitzaion hasieran eta hitza errespetatu egin behar zen, Arana eta Intxaurrendietaren asmoa ez baitzen izan erosketarekin onura ekonomikorik lortzea. Hirugarrenik, aurreko urteetako gorabeherak eta garai berriak kontuan hartuta (II. Kontzilio Vatikanoa 1965eko azaroaren 8an amaitu zen), aldaketa ez zen onargarria. Aita Aranaren esanetan:

La solución actual, creo que perjudicará gravemente al casero. No creo que ayude mucho a la buena fama de Loyola y de la Compañía en este valle semejante compraventa.

De la forma como se ha llevado este asunto, sobre todo en su última fase, prefiero no hablar: al menos no favorece la manera conciliar de entender el diálogo, de promover la subordinación voluntaria de la obediencia, etc.,...<sup>61</sup>

Aita Intxaurrendietak, egun bat geroago, tratua nola egin zen azaldu zuen, 1.200.000 pezetan prezioa baserritarrak jarri zuela eta onartzeko orduan berak kontuan izan zuela etxeko beheko solairuan hainbat gela egin zitezkeela, peritu berriek aintzat hartu ez zuten aukera, hain zuzen. Proposamen berriak ondorio kaltegarriak izango zituen baserritarrarekin ez ezik, baita aldundiarekin zituzten harremanetan ere. Izan ere, Intxaurrendietaren asmoa —geroago gauzatu zena— baserria (recuerdo de veneración para la Compañía) aldundiari saltzea zen eta ezin zuen alde handirik egon baserritarrak eskatu, jesuitek ordaindu eta aldundiko teknikariek finkatuko zuten kopuruen artean. Aita Arana bezala, Intxaurrendietak ohardun zen egoera aldatu zela. Lagundiaren buruzagien asmoa gauzatzuz gero, ondorio hau edukiko zuteen:

situación de crítica y murmuración en el valle ante este hecho, en especial contra el que aparentemente ha ayudado al casero, si ven a este justamente ofendido, si se realiza algún acto contra él, sin previo conocimiento suyo.

Aita Arana eta aita Intxaurrendietaren hitzek, antza, eragina izan zuten, eta azkenean Egibarko nagusiari 1.200.000 pezeta ordaindu zitzaizkion. Intxaurrendietak Egibar baserriaren erosketa-prozesua erabili zuen ia hogeita urte geroago, 1982an, bere kudeaketa gaitasuna eta baserritarrari emandako laguntza goratzeko eta aita Bereziartuari erantzuteko:

---

61 Odriozola familiaren kopia, 1966ko urriaren 30ekoa.

pudo este (baserritarrak) cancelar las deudas y quedar, limpiamente, propietario de los buenos terrenos que luego valieron millones. Aquí hubiese querido ver yo a los redentores de los “adivasis”.

## 7.- Azken urteetako bilakaera

Aurreko pasarteak ikusita, Odriozola familiari gertatutakoari erreparatuta, irakurleak pentsa dezake garaiko eguneroko tratu baten aurrean gaudela eta askoz ere gogorragoa izan zela Francoren garaiko Espainiako beste toki askotan gertatutakoa, han lur-jabeek inolako konpentsazio saririk gabe kanporatu zituztelako maizterrak, haien lan-tresnak lapurtu eta, behin baino gehiagotan, hil egin zituztelako. Ez zen horrelakorik gertatu Munategin, baina gertatutakoak arrasto sakonak utzi zituen inguruan eta, nola ez, Odriozola familian. Bereziartuaren arabera, nahiz eta gai horri buruz hitz egitea debekatuta egon, baita jesuiten artean ere, Indiatik itzultzen zen bakoitzean auziak bizirik zirauela nabaritzen zuen. Kontraesan esanguratsua zegoen basilikako sermoietako justizia, zuzentasun eta karitateari buruzko hitzen eta handik metro gutxitara gertatutakoaren artean. Horrek bultzatu zuen bere txostena idaztera. Jesuita askok euren kontzientzian salatzen zuten Loiolan bertan gertatutako injustizia, baina inor ez zen ausartu publikoki kondenatzera jesuitek beraiek egindakoa, beharbada, salaketa horren erantzuna kalte ordainak eskatzea izan zitekeelako:

Sería muy edificante que esos consejos ignacianos de las anotaciones 150 y siguientes, sobre los diez mil ducados conseguidos de una manera poco cristiana, que los jesuitas constantemente venimos dando, a muchas decenas de miles de ejercitantes en Loyola, los aplicáramos una vez a nosotros mismos respecto a caseríos, terrenos, etc. que hemos conseguido de una manera poca cristiana.

Bereziartuak aita probintzialari lan hori egin zezala eskatu zion, baina, guk dakigula, ez zen ezer egin. Hurrengo urteetan argitaratutako liburuetan, Plazaolak ez dio inongo tarterik eskaintzen erosketari eta Elkargoaren sorrerari buruzkoa da aipu bakarra (Plazaola, 1993: 51).

Intxaurrendietaren lan guztiek emaitza urria eta laburra izan zuten. 1954. urtean, nobizioa izan zen Loiolan Eugenio Arraiza euskaltzale nafarra; ez zuen, noski, gertatutakoaren berririk izan, baina bere memoria-liburuetako batean hango giroa eta azpiegiturak azaltzen ditu (2013: 19 eta 202). Nobizioek santutegiaren atzealdeko baratzea, besteak beste, erabiltzen zuten pasealeku moduan, baina bereizketa garbia egiten zuten: hormaz inguratutako eremua zen haien esparrua. Posible zen beste aldera, berak “Caserío Odriozola” deitzen duenera, pasatzea, hormaren zati bat eraitsi egin zutelako, eta hala egiten zuten ibilaldia luzatu nahi bazuten, baina ez zen ohizkoa. Are gehiago, Arraizaren hitzetan, lur berriak ez ziren baratze gisa erabiltzen, ez, behintzat, ahal zen beste. Ez zuen iritzi bera Lagundiaren egunerokoaren idazleak urte batzuk lehenago: «Ahora hemos contratado muchos empleados



que cultiven esas fincas; y en estos últimos meses se trabaja para mejorar los caminos, sembrar los campos, plantar árboles y cosas similares»<sup>62</sup>.

Bi urte geroago, 1956an, jesuitek Loiolako nobiziatua ixtea erabaki zuten eta beste bat irekitzea Veruelako monasterioan, Zaragozan. Hurrengo urteetan *junioradoa*, Filosofia fakultate bihurturik, Loiolan mantendu zen, baina ikasle kopurua txikitzen hasi zen hirurogeiko hamarkadan eta azkenean itxi egin zuten 1969an. Handik gutxira gogo-jardunen etxe bilakatu zen. Munategi baserria 1975ean eraitsi zen, behitegi berria altxatzeko. Intxaurrendietaren asmoek praktikan ez zuten erabilera handirik izan: 1982an Joan Paulo II.a aita santua Loiolara etorri zenean, harrera ekitaldia basilikaren atzeko aldean egin zen, santutegiaren baratzea eta Muniategiko soroen horma behin betiko eraitsi ondoren.



2016. Loiolako santutegia eta ingurua Izarraitz menditik ikusita. Mikel Aizpururen argazkia

Lan berriak egin ziren 1991. urtean, baina giroak ez zuen zerikusirik aurreko mendeko gertakariekin, eta Loiolaren sustatzaileek berek ere ez zuten lehenagoko indarra. 1998an, Gipuzkoako Ogasunak Katastroa berri zuenean, Loiolako Lanen Elkargoari jakinarazi zion dirutza ordaindu beharko zuela, bera baitzen, santutegia alde batera utzita, Loiolako eta beste toki batzuetako etxe eta lurren jabea. Elizak, aldiz, ez zuen zertan ordaindu Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga. Gauzak horrela, aldundiaren oniritziarekin, 1999an elkargoak bere akzioak jesuiten esku utzi zituen eta Jesusen Lagundiko Probintzialak hartu zuen bere gain zuzenean

<sup>62</sup> AHL, *Historia Domus* 1948-1949.

santutegiaren inguruko eremuen jabetza eta kudeaketa. 150 urtez izandako bikoizketa horrela amaitu zen. Garai berean aterpetxea eraiki zuten mendeetan Odriozolatarren etxebizitza izan zen baserria egon zen tokian. Hor ere egon zen arazoren bat udalarekin, baimendutako eraikinez gain etxebizitza bat altza zelako<sup>63</sup>. Harrezkero, lorategiak eta pasealekuak dira hango soroak.



2016. Loiolako inguruaren kartela. Mikel Aizpururen argazkia

## Bibliografia

AROCENA, F. (1941): *Contribución de la Excma diputación de Guipúzcoa al IV Centenario de la fundación de la Compañía de Jesús*, Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián.

ARRAIZA, E. (2013): *Memorias V. Los Muros del Cielo. Loyola, 1954-1956*, EuskoKultur,

<sup>63</sup>AHL, *Historia Domus*, 1999.

Pamplona.

ARTOLA BLANCO, M. (2013): «Los terratenientes frente al cambio agrario, 1940-1954», *Historia Agraria*, 59, 125-158.

ASTIAZARAIN ACHABAL, M. I. (1988): *El Santuario de Loyola*, Gipuzkoako Kutxa Kultur Fundazioa.

ASTRAIN CALVO, L. (2000): «Anteproyecto de Restauración Interior de la cúpula de la Basílica de Loyola: Metodología utilizada», *Ondare*, 19, 213-222.

ASTRAIN CALVO, L. (2006): «El Santuario de Loyola», *Ars Sacra*, 38, 91-99.

BERRIOCHOA AZCARATE, P. (2008): «“Gurutzea eta Arbola”. Apuntes sobre la Iglesia vasca y los sermones de las fiestas euskaras en Gipuzkoa», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, 64, 1069-1091.

BERRIOCHOA AZCARATE, P. (2013): *Como un jardín. El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX*, EHU, Bilbo.

CASTELLS, L. (2010): «Los Zavala o el devenir de los notables rurales en Guipúzcoa (1865-1923)», *Alcores*, 11, 341-365.

EGIDO, T. (coord.), REVUELTA GONZÁLEZ, M. & BURRIEZA, J. (2004): *Los jesuitas en España y en el mundo hispánico*, Fundación Carolina-Marcial Pons Historia, Madrid.

EGUILLOR, J. R., HORNEDO, R. M. & HAGER, H. (1991): *Loyola: historia y arquitectura*, Etor, Donostia.

EGUILLOR, J. R., REVUELTA GONZÁLEZ, M. & SANZ DE DIEGO, R. M. (1988): *Memorias del P. Luis Martín, general de la compañía de Jesús (1846-1906)*, Institutum Historicum S. I., Roma.

ESCUADERO, J. A. (2014): *La Iglesia en la Historia de España*, Marcial Pons/Fundación Rafael del Pino, Madrid.

GARCÍA, R. (1866): *Noticia histórico-descriptiva del Colegio de Loyola*, Imprenta y Librería de A.E. Aguado, Madrid.

GARCÍA ROYO, A. (1945): *Tratado de arrendamientos rústicos*, Gráficas Voluntas, Madrid.

GARRIDO HERRERO, S. (2012): «La ley de la costumbre. Arrendamientos rústicos y derechos de propiedad en la Huerta de Valencia (siglos XIX y XX)», *Ayer*, 88, 149-177.

GOROSABEL, P. (1972): *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa. Vol II*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

GUADALUPI, G., RODRÍGUEZ G. DE CEBALLOS, A., BÉRCHEZ, J., ROMANO, L. (2006): *Loiolako Santutegia -El Santuario de Loyola*, FMR, Bologna.

HORNEDO, R. M. (1956): «La Basílica de Loyola», *Miscelanea Comillas. Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, 14-25, 383-430.

INCHAUNDARRIETA, G. (2009): *Semblanza de un jesuita vasco desterrado durante el primer franquismo: José Martín Aguirre-Ceciaga, S.I.*, Instituto Ignacio de Loyola-Universidad de Deusto, San Sebastián.

INTXAUNDARRIETA, G. (1983): *Errekarte, Loiola ta Anaia Garate: (zenbait ezaugarri)*, Mensajero, Bilbao.

KORTADI, E. (1985): «Santuario de Loyola en Azpeitia» in ASKOREN ARTEAN, *Monumentos Nacionales de Euskadi*, EuskoJaurlaritza - Gobierno Vasco, Donostia.

LA BELLA, G. (2007): *Pedro Arrupe, general de la Compañía de Jesús*, Ediciones Mensajero-Editorial Sal Terrae, Bilbao.

LACOUTURE, J. (1994): *Jesuitas. I. Los conquistadores*, Paidós, Barcelona.

LARRAMENDI S.J., M. (1969): *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal Provincia de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián.

LARRAMENDI S.J., M. (1990): *Escritos breves*, Kutxa, San Sebastián.

LASA, José Ignacio: *Tejiendo historia*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. San Sebastián. 1977.

LECANDA, J. J. (1941): *Loyola; prólogo de Luis Redonet y López Dóriga*, [s.n.], Bilbao.

LECUONA, M. (1931): «La Marcha de San Ignacio. Sus textos», *RIEV*, 22, 338-362.

LINAZASORO, J. I. (1986): «Proyecto de ordenación del área del Santuario de Loyola», *RIEV*, 31

2, 465-478.

LÓPEZ ALARCÓN, M. (1962): «El arrendamiento de las viviendas de renta limitada y de las subvencionadas», *Universidad de Murcia*, 20 2, 163-208.

LÓPEZ DE ABERÁSTURI, A. (1997): *La casa torre de Loyola: historia y noticia de las obras de consolidación : noviembre 1989-julio 1990, octubre 1991 -1992*, Universidad de Deusto.

LÓPEZ DE ABERÁSTURI, A. (2000): «Escena y medida: una mirada sobre las relaciones proyectuales del Colegio de Loyola», *Ondare*, 19, 235-243.

LÓPEZ DE SEBASTIÁN, J. (1985): «Antecedentes de la nueva ley del trigo», *Revista de Estudios Agrosociales*, 130, 15-33

LOUZAQO, J. (2010): «El Sagrado Corazón de Jesús como instrumento de nacionalización (c. 1898-1939). Breves notas para un estudio pendiente» in M. ESTEBAN DE VEGA, & DE LA CALLE VELASCO, M. D., *Procesos de nacionalización en la España contemporánea*, Universidad de Salamanca, Salamanca, 173-189.

MUGICA, S. (1918): *Geografía General del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*, Carreras i Candi, Barcelona.

NARVARTE, I. M. (1914): «El santuario de Loyola», *EuskalErria*, 71, 107-121

O'NEILL, C. E. & DOMINGUEZ, J. M<sup>a</sup>. (2001): *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús. Biográfico-Temático*, Institutum Historicum S.I., Roma.

ORTEGA LÓPEZ, T. M. (2011): *¿La soledad del campesino? Politización y conflictividad en el campo español durante la dictadura franquista*, XIII Congreso de Historia Agraria, Lleida.

PAN-MONTOJO, J. (2008): «El fin de un ciclo: las transformaciones de la propiedad y la explotación de la tierra en la posguerra» in E. FUENTES QUINTANA, *Economía y economistas en la Guerra Civil*, Galaxia Gutenberg, Barcelona, 649-676.

PÉREZ ARREGUI, J. M. (1925): *Guía descriptiva de la Santa Casa de Loyola*, Razón y Fé, Madrid.

PINEDO, I. (2004): «Jesuitas en el País Vasco/Navarra» in J. INTXAUSTI, *Euskal Herriko Erlijosoen Historia. Familia eta Institutu Erlijosoen Euskal Herriko historiaren I. Kongresuko Aktak (Arantzazu, 2002ko ekainaren 24/28etan)*, Arantzazu, Oñati, 569-584.

PLAZAOLA, J. (1993): *El Santuario de Loyola*, Escudo de Oro, Barcelona.

REVUELTA GONZÁLEZ, M. (1984): *La Compañía de Jesús en la España contemporánea. T. I : Supresión y reinstalación (1868-1883)*, Universidad Pontificia Comillas, Madrid.

REVUELTA GONZÁLEZ, M. (2008): *La Compañía de Jesús en la España contemporánea. Tomo III: Palabras y fermentos (1868-1912)*, Universidad Pontificia Comillas, Madrid.

RIBADENEYRA, P. (1969): *Vida de San Ignacio de Loyola*, Iberia, Madrid.

RODRIGUEZ DEL CORO, F. (1979): *Colonización política del catolicismo: la experiencia española de posguerra (1941-1945)*, Caja de Ahorros Provincial, San Sebastián.

RUBIO POBES, C. (2003): *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*, Biblioteca Nueva, Madrid.

SANZ HOYA, J. (2008): *La construcción de la dictadura franquista en Cantabria. Instituciones, personal político y apoyos sociales (1937-1951)*, Universidad de Cantabria, Santander.

SERVAN MUR, V. (1956): «Los contratos agrarios en la realidad actual de España», *Revista de Estudios Agro-Sociales*, 15, 93-156.

TELLECHEA IDIGORAS, J. I. (1986): *Ignacio de Loyola, solo y a pie*, Ediciones Cristiandad, Madrid.